

# ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko urriak 9 - 1158. zenbakia

48 Oroitzaria VALENCIAGA Memorial  
HELMUGA - META



## BIZIKLETAK UDAZKENERAKO DIRA



Toribio Etxebarria, 1

**EUKI**  
servicios inmobiliarios

20 urtetik gorako esperientzia  
eskaintzen dizuegu  
bailorazioetan eta eraikinetako  
salerosketa, alokairu eta  
traspasorako bitartekotzan



bisitatu gure eskaintzak web-ean  
[www.euki.com](http://www.euki.com)

GALDETU: 943 20 03 58 / [fincas@euki.com](mailto:fincas@euki.com)



# + osasun gida

## Dentistak



**arar**  
Hertz Klinika

"Hertz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51  
info@clinicadentalarat.com  
www.clinicadentalarat.com  
Toribio Etxebarria, 7. EIBAR

Universalud  
Mutua, konpainia eta kolektibog handiekin itundutako zentzua



**hertz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4,      Tel. 943 70 23 85



**IRAZABAL**  
clínica dental

**Irribarreetan adituak**  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnua: 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

**Bidebarrieta, 7 - 1. esk.      943-702886**



**bista eder**  
clínica dental    hertz klinika

Deitu | 943 70 00 82      bista eder, 19  
www.bistader.es

Esku onetan egotearen ziurtasuna.  
20.000k gura proiektu guztiak.  
Ezartu eta gura arduratu berri eta.



**EIBAR**    HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. INIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 beheko ezka.      info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808      www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. esk.      Tfnua: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI  
Ortodontzia / Implanteak / Laser teknologia

Emebal, 9 - 1. C.      943 70 00 90 / 688 68 95 02

## Dietetika/Nutrizioa



**NATUR HOUSE**

Ainara Iriondo Ansoa  
GIZA ELIKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Mugikorra: 677 551 850

## Errehabilitazioa



**CRF AMOSTEGI**  
**ERREHABILITAZIOA**

- Fisioterapia / Errekuparazio funtzionala
- Min-Ukitzea
- Inkontinentsia urinarioak
- Kiria medikuntza
- Arno izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EBAR)      San Ignazio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnua: 943 20 34 46      Tfnua: 943 74 33 74

## Estetika



**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA**  
ESTETIKOA

**KIRURGIA**  
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - I. eta      943 206 044

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
19. Koloniko dia

- ENDIRATERAPIA
- KIBOI, LESIOAK
- PIRIETIN SORRI
- TRATAMENDUAK
- K-stretch + HIDROPIEDIOAK

**FISIOTERAPIA**  
**ZENTRUA**

ARRAQUETA, 20  
Tel: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

## Ginekologia

Dra. Laura Martínez      Dr. Alejandro Recas



**GINECOLOGÍA**  
**EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65      San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com  
dra.martinezgallardo@gmail.com  
www.ginecologiaeibar.com



## Atxiloketak eta jazarpenak

Badirudi batzuek konponbidearen gurgilari ziriak sartu beste lanik ez dutela. Astelehenean kontzentrazio batera deitu genuen konponbide garaia dela eta gertatu berriak ziren atxiloketak salatzen. Ertzaintzari behar bezala komunikatuta zegoen, nahiz eta egoerak horrela eskatuta urgentziaz azkeneko orduan izan. Eta han jarri zitzaizkigun aurrean sei ertzain eta bi udaltzain, hori bai, gaztelera garbian identifikatzeko eskatzen, komunikazioari buruz "no nos consta" eginez.

Garbi geratu ziren pare bat kontu: batetik ertzainek bere lana ez zutela ondo bete (komunikazioarena ez zuten behar bezala ikertu) eta, bestetik, euskal polizia izateko hizkuntza perfilak ez duela garrantzi handirik. Eta udaltzainek han zer arraio egiten zuten ez dakigu, ez diogu esplikaziorik aurkitzen.

Joan den zapatuan "650 tontor" ekimena, eguraldi txarra medio, ezin izan genuen egin eta, horren ordez, Euskal Herriko herri guztietan argazki masiboak egiteko deialdia egin zuen SAREk. Gu Untzagan elkartu ginen eta argazkiarena bost minutuko kontua izan zen, baina han ere agertu ziren ertzainak; hainbat eta hainbat argazki egiten dira Untzagako harmailtan (kintadak etabar) Ertzaintzari komunikaziorik egin gabe, baina gurea beti beste grina batekin begiratzen dute eta pertsona bat identifikatu zuten, beste-lako onik ez zuten, eta multaren bat etorriko ote den zain gaude.

Azken aldirian jazarpen berezia somatzen dugu Ertzaintzaren aldetik, badirudi udaltzainak ere horretan parte hartu nahi dutela, baina guk garbi daukagu: Konpenbidea, Elkarbizitza eta Bakerako bidea eginez, azken Preso eta Iheslaria etxera ekarri arte ez dugu etsiko eta lanean jarraituko dugu.

ETXEAN ETA BIZIRIK NAHI DITUGULAKO.

SARE Eibar

"Orain dela 50 urteko irudia: gizonezko zimel bat ikastetxearen sarreran zuzendariari esanez egurren emateko bere semei. Seme haietako batekin topo egin nuen aurrekoan: biok hizketan hasi, eta 'egurren falta duk gaur' esan zidan. Nietzsche etorri zitzaidan burura 'eta hark zioena: 'Norbaitek baldin badaki zer gertatzen den animalia basatiak hezten dituzten lekuetan, ez du uste izango hobetzen direnik. Ahuldu, gaiztotu, gaixotu egiten dituzte, beldurraren beldurrez, zauriak eraginez eta goseak edukiz'. Eta, aldeak alde, antzekoa egiten dute hezitzaileek gizakiekin. Egurren ez du ezer ontzen; are gutxiago, berez ona denik. Hala zioen hasierako kristautasunak ere, zoritxarrez Elizak Kartagoko kontzilioan jatorrizko bekatuaren doktrina ezarri zuen arte. Ondotxo dakigu, baina, funtsean onak izanagatik ere, gaizki funtzionatzen dugula. Baina zigorrek axaleko aldaketak besterik ez dakarte".

PELLO ESNAL, idazlea

"Adinekoak bakartuz joan gara, ohartu gabe; denbora faltagatik askotan. Beti biharko uzten duzun lagunaren dei hori bezala, bihar bai, bihar seguru, eta pasatzen zaizu, eta ez zara iristen. Eta denbora igarotze horretan gertatzen da isolamendua. Etengabe galdetu behar dugun zerbait da: nolako harreman sozialak sortu behar ditugun adin batetik aurrera sistematikoki ez baztertzeko. Gaur egungo egoerak hori erakutsi badu ere, adinekoen isolamendua lehendik dugun pandemia da; jende hori bakarrik hiltzen zen lehen ere".

MAITE ALBERDI, zinemagilea

"Ezjakintasunaren eta gaixotzeko beldurraren ondorioz, gaixoa edo infektatua 'bestetzat' hartzen da, eta harengandik bereizteko joera agertzen da. Estigma uste oker batetik jaiotzen da, gaixoa edo infektatua nahita edo zerbait gaizki egin duelako gaixotu edo infektatu dela. Eta ez da hala. Bazterketaren beldur horrek arearagotu egiten du diagnostikoa edo gaitza ezkutatzeko arriskua, baita osasun zerbitzuetara joatea saihestekoa eta prebentzio-neurriak ez hartzekoa ere".

ANA GALARRAGA, Elhuyar zientzialaria

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**NAHIGABIA EMON.-** Doluminak eman. "Petrari naigabia emotera juan non eta an billau jonat Andre Madalen kantatzen".

**NAHIAHALA.-** Nahi beste, nahikoa eta sobra. "Nai ahala euki genduan jan da erana egun hartan".



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA**  
...eta kitto! Euskara Elkartea  
**HELBIDEA**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285  
**FAXA** 943 20 72 72  
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus  
**ELKARTEAREN E-MAILAK**  
elkartea@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez  
**ADMINISTRAZIOA**  
Marisol Uriarte  
**KOORDINATZAILEA**  
Ana Aizpurua  
**ERREDAKZIO-BURUA**  
Silbia Hernandez  
**DISEINUA**  
Maku Oruezabal  
**MAKETAZIOA**  
...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**  
Malen Jainaga eta  
Malen Illarramendi  
**HIZKUNTZA ARDURA**  
Juan Andres Argoitia eta  
Maider Aranberri  
**PUBLIZITATEA**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia  
**TELEFONOA**  
943 20 67 76  
**AZALEKO ARGAZKIA**  
Malen Illarramendi  
**BANAKETA-ARDURA**  
Idoia Labado

**TIRADA**  
7.868 ale  
**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)  
**COPYRIGHT-A**  
...eta kitto!  
**LEGE-GORDAILUA**  
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)







## Euria gogotik bota arren, ondo joan zitzaien azokan

>>> Zapatuan azoka ekologikoa egin zen Txaltxa Zelaian, Debarreneko IX. Aste Ekologikoaren barruan, ENEEK Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren laguntzarekin Eibarko Udalak eta Biolur eta Debemen elkarteek antolatuta. Oraingoan eguraldiak ez zuen lagundu eta, hori dela eta, azokan beste batzuetan baino jende gutxiago ibili zen, baina bertoko ekoizleek ondo saldu zituzten azokara eramandako produktuak. Bestalde, Eibarko ostalariekin elkarlanean prestatutako Gutizia Ekologikoen Ibilbideak ere oso harrera ona izan zuen.

## Koronabirusaren gakoak azalduko dizkigu astero Ana Galarraga kazetariak

>>> COVID-19k eragindako itxialdiaren garaian, koronabirusaren inguruan Ana Galarragarekin egindako bideo-pilula batzuk sortu zituen Elhuyarrek eta, euskerazko hedabideetan zabaltzeko euren eskaintzari esker, etakitto.eus gure web orrian bideo horiek zuentzat eskuragarri ipini genituen. Ekimenak oso harrera ona izan zuela ikusita, aurrerantzean ere koronabirusaren inguruko bideo batzintzilikatuko dugu astero, martitzenetan, ETBk eta Elhuyarrek elkarlanean ekoizten duten Teknopolis saioan Ana Galarragak duen tartean ematen dituen azalpenak ikusteko aukera izan dezazuen. “Koronabirusaren



gakoak: COVID-19 iraukorrira” izenburuko lehen bideoa dagoeneko gure web orrian ikus dezakezue eta bertan COVID-19aren sintomen iraupenaz egiten du berba zientzian aditua den kazetariak. Izan ere, berak azaltzen duenez, COVID-19aren sintomak luze irauten dute batzuetan eta horren zergatia ikertzen ari dira.

## Gripearen kontrako txertoa bereziki garrantzitsua da aurten

>>> Euskal Autonomia Erkidegoko kanpaina orokorra urriaren 13an abiatuko da, baina aste honetan hasi dira adinekoen egoitzetako egoiliarrei eta langileei eta Osakidetzako osasun langileei gripearen kontrako

txertoa ipintzen. Gainontzeko arrisku taldeetako pertsonak datorren astetik aurrera izan-go dituzte txertoak eskuragarri. COVID-19 dela eta, aurten txertoa jartzea inoiz baino garrantzitsuagoa dela ohartarazi dute.



## Kalamuan egitekoa zen argazkia Untzagan egin behar izan zuten

>>> Izan Bidea/Ibiltarien Sarea dinamikaren baitan, zapatu eguerdian talde argazkiak egin ziren herrietako plazetan eta Eibarren ere hala egin zuten, Untzagako harmailetan. Berez egun horretan Euskal Herriko mendietara igo eta 650 tontoretan argazkiak egiteko asmoa

zegoen, baina eguraldiaren iragarpenak ikusita antolatzaileek azken orduan ekimena 2021eko maiatzaren 8ra atzeratzea erabaki zuten eta talde argazkiak, mendietan egin ordez, herrietako plazetan egiteko deia zabaldu zuten, ondoren sare sozialetan zabaltzeko.





## San Andres ikastetxeko 100 ikasle Itziora eramatea eskatu dute

>>> Ikasturtea hasi zenetik Eibarko ikastetxeak COVID-19ak ekarri duen egoera berrira egokitzen ari dira. Bidebarrieta kalean dagoen San Andres ikastetxean ikasle dentsitatea oso handia da eta "konplikatu da protokoloak eskatzen dituen hainbat baldintza betetzea", esan digute. Udalak eskolaren eskura utzi dituen parkeak aproposak direla diote, baina "eskainitako lokalak ez dira egokiak eta ez dituzte gure beharrak betetzen (tamaina, kokapena, prestaketa, zerbitzu falta...)".

Hori dela eta, Itzio eraikina eskatu diote Hezkuntza Sailari. "Itzio eraikinak orain dela urtebetera arte ikastetxe bezala funtzionatu du eta, beraz, eskola batek behar dituen azpiegitura guztiak ditu: jangela, kiroldegia, patioak...". Bilerak egin dituzte Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin eta prozesua bide onetik doa. Ondorioz, "Itzioko gelak eta espazioak egokitu bezain pronto, gure eskolako 5. eta 6. mailako 100 ikasle Itziora joatea espero dugu", adierazi dute ikastetxetik.

## Pentsiodunek zaintza zerbitzu publiko eta segurua eskatu zuten

>>> Adinekoen Nazioarteko Eguna gogoratzen da urriko lehen egunean eta, horren harira, Gipuzkoako Adinekoen eta Pentsiodunen Elkarteek Plataformak (GAPEP-PAMPG) kolektibo honen premia eta eskara nagusiak laburbiltzen dituen adierazpena kaleratu du. Bertan esaten dutenez, "aurtengoa urte berezia da adinekoentzat, gure bizikidetzari, gure osasunari eta kolektibo kaltebera gisa ditugun eskubideei kalte handia egitera etorri den pandemia baten erdian ospatzen baitugu". Besteak beste, pandemiak ongizateko erakunde publikoen

garrantzia azpimarratu dela diote, "enpresa pribatuak ez baitira ordezkatzeko gai. Balarazio horrek pentsio publikoen garrantzia ere aitortzera garamatza". Horrekin batera, adinekoen eskubideak errespetatu eta bizitza duina bermatze aldera, "pentsioen sistema publikoa blindatzea eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa bermatzea" eskatzen dute, baita zaintza zerbitzu publikoaren etxean zein zaharren egoitzetan ere. Eskaera horiekin bat eginik, astelehenean manifestazioa egin zuten gure herriko pentsiodunek.



[www.ludotekazorionak.com](http://www.ludotekazorionak.com)

**zorionak klub**  
Izan bazkide

HAUR FESTAK  
JOSTAILU HEZIGARRIAK  
SORMENEZKO PAPERAK  
LUDOTEKA  
TAILERRAK

URKIZU PASALEKUA, 3. EIBAR - 943543697

[www.lugueteriazorionak.com](http://www.lugueteriazorionak.com)

\*Kupoi hau aurkeztuz Ludotekako ordu bat opari. (Epea 2020/10/29)

**50% ZURE URTEBETETZE FESTAKO MENUAN.**  
(Banekako Urtebetetzeetarako balio du)

**5% JOSTAILU HEZIGARRIETAN SORMENEZKO PAPERAN LUDOTEKAN TAILERRETAN**  
\*Gelaren erabiltzaritasunaren arabera.

2020/10/15 etik aurrera balio duen promozioa. Beharpenak ez dira beste promozioekin metatzen.



## TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

## Ekingune elkartearen On Ekin enpresa ideia eta proiektuen lehiaketaren edizio berria martxan dago

>>> Zortzigarrenez antolatu duten On Ekin enpresa ideia eta proiektuen lehiaketa aurkeztu zuten aurreko astean Miguel de los Toyos alkateak, Maialen Gisasola Ekinguneko presidentek, Mariella Saitz Axa aseguru-etxeko agenteak eta APPSAMBLEA enpresako Jesus Angel Bravok. Aurreko edizioetan bezala, lehiaketak bi fase izango ditu. Lehenengoan, epaimahai batek lehiaketara aurkeztutako proiektu/idea bakoitzaren balorazioa egingo du (azken eguna urriaren 15a da eta hautagaitzak onekin@ekingune.com helbidera bidali behar dira). Bigarren fasea, berriz, urriaren 22an egingo da: On Ekin afari-ekitaldian lehen faseko hiru proiektu irabazleen artean azken aukeraketa egingo da, epaimahai baten bidez. Lehen saria 2.500 eurokoa izango da, bigarrena 1.000 eurokoa eta hirugarrena 300 eurokoa. Gainera, parte-hartzaile guztien artean bozka bitartez beste sari bat aukeratuko dute. Sari horretarako On Ekin



ekitaldiko izen-emate bakoitzetik 5 euro bilduko dituzte. Edonorjoan daiteke afarira, berdin dio aurkeztutako proiektuekin lotura izan ala ez. Interesa dutenek onekin@ekingune.com helbide elektronikoan eman dezakete izena. Afarira joanez gero 30 euro ordaindu beharko dituzte eta, bestela, online modalitaterako kuota 5 eurokoa da. Izen-ematea urriaren 19a baino lehen egin behar da, ES94 2100 1883 9502 0021 0124 kontu zenbakian dirua sartuta.

## Euskadi Bono-Denda kanpaina abiatu dute merkatarientzat

>>> Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak 'Euskadi Bono-Denda' programa jarri du abian, gutxienez 30 euroko erosketan 10 euroko deskontu-bonuak eskaintzeko. Programa honetaz baliatzeko, interesa duten establezimenduek datozen hiru asteetan egin beharko dute bat ekimenarekin, eta programak abenduaren 31ra arte edo atxikitako establezimendu bakoitzak dituen bonoak agortu arte iraungo du.

Eibar, Ermua, Elgoibar, Sorluze eta Mendaroko establezimenduak Eibarko Merkataritza Bulego Teknikoarekin jar



daitezke harremanetan kanpainari buruzko informazio gehiago eskatzeko zein zalan-tzak argitzeko (943206669 telefonoan) edo, bestela, interneten, [www.euskadibonodenda.eus](http://www.euskadibonodenda.eus) helbidean begiratu daiteke.

## AECC elkarteak ibilbide osasungarriak eskainiko ditu

>>> Debabarreneko AECC Minbiziaren aurkako Elkar-teak ibilbide osasungarrien programa jarriko du martxan urriaren 20tik (martitzena) aurrera. Herritar guztientzat zabalik eskainiko dute jarduera, astean behin (martitzeno), 10:00etan elkartearen egoitzatik abiatuta (Ardantza, 11). Ibilbideak eskualdeko hainbat

tokitan egingo dira, 5 bat kilometrokoak izango dira eta ordu eta erdiko iraupena izango dute, gutxi gorabehera. Jardueran parte hartzea doakoa da, baina aurretik izena eman beharra dago, 943 20 24 94 telefono zenbakira deituta edo gipuzkoa@aecc.es helbidera mezua bidalita (plaza kopurua mugatuta dago).



## Errebalgo lanei buruz esan direnak ezeztatu dituzte

>>> Errebal Plataformak oposizioko hiru alderdietako ordezkariekin batera Errebalgo lanei inguruan egin zituzten adierazpenei erantzuteko, prentsaurrekoa eman zuten aurreko barixakuan Jon Iraola Obrak saileko zinegotziak eta Ana Telleria Ogasuneko zinegotziak. Argitu nahi izan zuten lehen puntua proiektuaren kudeaketaren gardentasunari lotutakoa izan da: “Errebalgo proiektua eta proiektu horretarako onartu ziren aldaketak kudeatzeko orduan opakotasunez, oso argi ez dagoen zerbait ezkutatzeko ahaleginetan ari garela esan da eta hori gezurra da. Proiektuak izan dituen aldaketa guztiak uztailearen 14an egin zen Obra Batzordean Udalean dauden alderdi politiko guztiei azaldu zitzaizkien. Bilera horretan proiektua idatzi dutenak, hau da, UTE Errebal Hiru-ko langileak diren eta Udalak kontratatu dituen injenieriak eta arkitektoa egon ziren, edozein zalantza argitu ahal izateko. Eta aldaketek dagokien dokumentazio guztia (memoria, planoak, aurrekontua eta kontratazio-orriak) uztailearen 23an igorri zitzaizen alderdi guztiei”.

Esandakoaren arabera, aldaketa horien jatorria zalantzatan ipini dute eta, horren harira, proiektua aldatu behar izateko arrazoiak argi laga nahi dituzte: “Proiektua aldatu behar izan dugu udal teknikariek hori egin beharra zegoela esan zutelako. Eraikina jasotzeko lanean ari zirela, proiektuan aurreikusita ez zeuden hainbat lan berri agertu eta egin behar izan dira nahitaez. Udal teknikariek hala esanda, eraikina amaitu ahal izateko lan horiek egitea beste aukerarik ez zegoen. Bestalde, proiektuari egindako aldaketen baitan, Udaleko beste alderdiekin aurretik adostuta eta hizartuta zeuden hainbat daude: biomasa-galdararen ordez eraginkortasun handiagoa duen beste sistema bat ezartzea eta parte-hartze prozesuan erabaki zena bete ahal izateko merkatuari eragiten dion aldaketa, adibidez”.

Horrekin batera, “lanak erritmo onean doazela” azpimarratu dute eta, aurreikusten dutenez, lanak 2021. urteko apirila eta maiatza bitartean amaituta egongo dira.

Herritar batek Udalean aurrekeztu dituen salaketan inguruan ere aritu ziren berbetan:

“Salaketa hori ez du UTE-ko langile batek egin, UTE hori osatzen duten enpresa bateko langile batek baino. Salaketak jasotzen dituenak egiaztatze-ko lanean ari gara, baina, gaur arte behintzat, ez dugu inolako arau hausterik aurkitu”.

### Rialtoko azokako saltzaileen etorkizunaz

Amaitu baino lehen, Rialton gaur egun dauden postuak Errebalera zuzenean joatea ala ez euren esku ez dagoela argi laga nahi dute: “Ez da borondate kontua, legalitate kontua baino. Beraz, udal-gobernuak Udaleko zerbitzu juridikoen gai horren inguruan idatzitako txostenetan esaten dutena bete beharra dauka. Eta aipatutako txosten horiek argi diote hori legez kanpoko dela”.

Euren berbetan, legearen arabera Errebal berriko postuak lehiaketa bitartez banatu behar dira, “baina hori ez da atzoko kontua, 2014. urtetik dakite alderdi guztiek hori horrela dela. Bestalde, baserritarrekin hartu genuen konpromisoa beteko dugula, horretan zalantzarik ez dago. Eurekin ez ezik, baserritarrak ordezkatzeko dituen Andirao elkartearekin batera aukeratu ditugu Errebal berriari izango dituzten postuak eta, agindu zitzaizen moduan, lehentasunezko tokian egongo dira gainera”.

## AUTUAN

### 1955. URTEAN JAIOTAKOEN BAZKARIA

Urte horretan jaiotakoek urriaren egin behar zuten bazkaria bertan behera laga dutela jakinarazi nahi dute antolatzaileek. COVID-19 dela eta, 2021eko urriaren 30era atzeratu dute topaketa. Dena dela, antolatzaileek izena eman dutenekin kontaktuan ipiniko dira laster, egon litezkeen zalantzak argitu eta azalpenak emateko.

### IPURUAKO JUBILATUEN GABONETAKO LOTERIA

Ipuruako jubilatutako zuzendaritzak bertako bazkideei aditzera eman nahi die Gabonetako loteria salgai ipini dutela, 5 eurotan.



### ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK

Bosgarren urtez jarraian, Udalak diruz lagunduko ditu Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen dituzten familietako seme-alaben eskolaz kanpoko udal jarduerak (kostuaren %100) eta horretarako 20.000 euro bideratu dituzte. Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak publikoak hauek dira: Eskola Kirola programa, Afariketako, Jazinto Olabe ludotekako jarduerak eta baita guraso-elkarteek antolatutako beste eskolaz kanpoko jarduerak ere. Eskabideak egiteko epea urriaren 30era arte egongo da zabalik.





## Orain dela urtebete horrelakoak ginen

Atzegik guztiontzat mundu ulergarriagoa helburu zuen kanpaina abiatu zuen. Asier Cuevas herri-lasterketaren zazpigarren edizioa jokatu zen. Ipurua gimnasia erritmikako senior mailako taldeak Euskadiko txapela jantzi zuen. Jose Agustin Gurrutzagak irabazi zuen I. Ojanguren argazki-lehiaketa. Liburu eta Disko Azokak bere postuak zabaldu zituen Untzagan. Urrezko domina birekin eta zilarrezko beste batekin itzuli ziren eibartarrak jiu-jitsuko Europako Kopatik. Baratze eta Kontent tabernak Gipuzkoako pintxo onenaren borrokan izan ziren. Jokin Alonsok Spartan Race-ko munduko txapeldun izatea lortu zuen. Teknikerrek indarrak batu zituen GH garabien enpresarekin. "Gure azukretxoek ondarea daramate" ekimena aurkeztu zuten Museoa.

1- Baratzekoek, Kontent-ekin batera, gure herria ordezkatu zuten probintziako pintxo-lehiaketan. 2- Atzegikoek sasoi honetako urteroko kanpaina aurkeztu zuten. 3- Asier Cuevas herri-probak kirol kutsua eman zion zapatu arratsaldeari. 4- Jokin Alonsok kirol modalitate berezi eta zaileko munduko txapela jantzi zuen. 5- Liburu eta Disko Azokak Untzaga hartu zuen pare bat asterako. 6- Jose Agustin Gurrutzagaren bildumak eraman zuen I. Ojanguren argazki-saria.







## Ipuruako merkatu plazaren erabilera adosteko hirugarren saio irekia

Ipuruako Merkatu Plaza auzoko elkargune bihurtzeko parte-hartze prozesuak aurrera jarraitzen du, eta urriaren 21ean egingo dute herritarrei irekitako hirugarren saioa. Hitzordua Ipuruako Merkatuko eraikinean bertan izango da, 18:30etik 20:00etara. **“Ipuruako merkatu plaza: Auzoko gunea”** ekimenaren helburua auzotarren eta eibartarren topaleku izatea da, adin guztietako herritarrentzako aisialdi hezitzailea oinarri moduan hartuta.

**C**OVID-19ak eragindako egoera dela eta, urriaren 21ean egingo duten saioaren edukiera mugatua izango da. Hogei lagunentzako lekua aurreikusita dago eta parte hartu nahi duten herritarrek [alkatetza@eibar.eus](mailto:alkatetza@eibar.eus) helbidera idatzi beharko dute urriaren 19rako. Baieztatutako jende kopurua aurreikusitakoa baino handiagoa balitz, beste leku bat aukeratuko litzateke bilera segurtasun-neurri guztiekin egin ahal izateko.

Bileraren helburua prozesua ixtea izango da, eta landuko diren gaiak hauexek izango dira: ekimenaren xedea eta balioak aurkeztea eta berrestea; espazioaren banaketa-proiektua finkatzea; eta antolaketa eta eman beharreko hurrengo pausoak zehaztea.

### Auzotarren topaleku

“Ipuruako merkatu plaza: Auzoko gunea” proiektua bultzatzen duen auzotar talde baten ekimenez, Ipuru auzoko mer-

katu zaharra birgaitzeko prozesua urte hasieran abiatu zen. Ekimenaren helburua “eraikin hau auzotarren eta eibartarren topaleku izatea da, adin guztietako herritarrentzako aisialdi hezitzailea landuko duen gunea irekiaren bidez”. Prozesu parte-hartzailea aurrera eramateko Emun Aholkularitza kontratatu du Eibarko Udalak, “eraikinaren erabilerarako aukerak zehazteko, eta espazioa dinamizatzeko eta antolatzeke ereduak definitzeko helburu

nagusiekin”. Orain arte bi saio ireki egin dituzte eta urriaren 21ekoa azkena izango da.

Aurreko saioetan herritarrek hainbat erabilera eta jardueramota jarri dituzte mahai gainean: tokiko produktu ekologikoen kontsumo taldea, aisialdia familiar, gazteentzako espazio alternatiboa, edoskitze taldea, irakurketa-gunea, zinekluba, tailerrak, ikuskizunak, musika... Guraso Eskola eta antzerkia bezalako jarduerak dagoeneko martxan daude. ■

Izadi  
LORADENDA  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**DOMU SANTU EGUNA** dela-eta  
ENKARGUZ EGINGO DUGU LAN

**ENKARGUAK:**  
asko jota urriaren 15erako  
(edozein lore-mota aukeratu nahi bada)  
HORTIK AURRERA STOCK-AREN ARABERA  
(lore-mota guztiak egotea ez da ziurtatzen)

**Urriak 28, 29, 30, 31**  
**ORDUTEGI BEREZIA**  
**09:30 / 20:00**



Jon San Vicentek Mikromatxismoen V. Nazioarteko Kongresuan egin zuen berba Sevillan.

<<< JON SAN VICENTE • Lengoai, identitatearen eraikuntza eta harreman homosexualak >>>

## “Zenbat eta pribilegio gehiago izan, orduan eta gehiago dekonstruitu behar zara”

Jon San Vicente eibartarrak Sevillan egin zen Mikromatxismoen V. Nazioarteko Kongresuan hartu zuen parte joan den astean, eta identitate homosexualaren eraikuntzan lengoaiak duen garrantziaren inguruan jardun zuen. Gaur egun doktoretza egiten dihardu Jaume I. unibertsitatean eta lantzen dituen gaien inguruko gogoetak ekarri ditu gurera.

### Zertan datza egiten diharduzun doktoretzak?

Jaiotzen garen momentutik arau, itxaropen eta ideia ezberdinak inposatzen dizkigute nolakoak izan behar dugun ezartzeko. Tamalez, inposaketa horiek eragina dute gudan eta jaiotze aurretik ere grabatuta ditugu. Nola jantzi behar garen, nolako harremanak izan behar ditugun, nola egin behar dugun berba, nor desiratu behar dugun, nolako gorputzak eduki behar ditugun, zein espazio bete behar dugun, zeintzuk ez... Identitate itxiak dira eta ito egiten gaituzte, batzuei gehiago

eta beste batzuei gutxiago. Beti jakin nahi izan dut hori guztia nondik datorren. Zergatik pentsatzen dut modu batekoa edo bestekoa izan behar naizela? Nola esan diezaiokeet beste bati nolakoa izan behar duen? Oso biolentoa da hori. Beraz, kooperazio eta garapenerako masterra amaitzen nengoenean, zuzendariak nahi nuen gaiaren inguruan doktoretza-tesia egitea proposatu zidan, eta gai hauen inguruan ikertzea eta hausnartzea berebizikoa zela ikusi nuen. Tesiak aztertu nahi duena da gizon cis homosexualak bezala identifikatzea prozesu

erresilientea den edo ez. Hori bai, identitatea zerbait estetikoa eta biologikoa bezala ulertu gabe, baizik eta eraikuntza sozial moduan edo pertsona batek momentu jakin batean erabili dezakeen estrategia bezala.

### Prozesuaren zein momentutan dago orain doktoretza?

Existitzen den informazio guztia batzen dihardut, gaur egun onartzen duguna onartzera (nola jantzi, nolako harremanak eduki...) nola iritsi garen jakiteko. Onarpen hori, berez ez daukan esentzia biologikoetan ematen dela uste dugu. “Hau

horrela izan behar da eta, bestela, seinalatu eta behartu egiten zaitut”. Arau horiek nola sortu diren aztertzen dihardut.

### Nola sortu dira?

XVIII. mendeaz geroztik Bioboterea bezala ezagutzen den momentua bizi dugu, non sistema berak identitate finkoak sortzen dituen. Hori kapitalismoarekin uztartu zen, kapitalismoak gorputz indartsu eta otzanak behar baitzituen. Eta, bestetik, sasoi horretan medikuntzaren garapena gertatu zen eta arauak eman ziren. Pertsona bat gizona bada ezaugarri jakin



batzuk izango ditu (indartsua, etab.) eta heterosexuala izango da nahitaez. Kapitalismoaren eta medikuntzaren bitartez gorputzak nolakoak izan behar diren ezartzen du botereak. Cisheterosexualitatearen arau horren barruan gizona izatea heterosexuala izatea da eta, ondorioz, homosexualitatea arau horren kontrako aldean gelditzen da.

### Sevillako hitzaldian aipatu zenuen maskulinitate heterosexuala eta homofobia berebizikoak izan direla identitate homosexuala eraikitzeko orduan. Beraz, identitate homosexualaren parte da?

Bai, eta hori da tristeena. Arau bat sortzean alteritate bat behar duzu (hau da, arauaren beste aldean edo kontrari dagoena), etengabe horrekin konparatzeko eta aldentzeko. Hori da sistema binarioak egiten duena: emakumezkoen eta gizonezkoen rola kontrajarri. Beraz (beti ere gizon cis-ei buruz berbetan), araua heterosexuallitatea bada, alteritatea homosexualitatea izango litzateke. Hala ere, homosexual batzuek arauari heldu nahi izan zioten, arau horrekin bat egin, eta heterosexualitatearen kontsumo

## “Kapitalismoarekin eta medikuntzarekin gorputzak nolakoak izan behar diren ezartzen du botereak”

dinamiketan sartu nahi izan zuten. Horrela, diskurtso heterosexualaz jabetu ziren eta beste alteritate edo bestetasun bat sortu zuten: emakume-jarrerara duen homosexualitatea. Bestetasun hau ezarrita, horrek zehaztuko du gizona zein den eta zein ez. Hau da, jarrera femeninoagoak dutenak ez dira gizonak eta besteak bai. Hori kezkarria da, datuek diotela gizon homosexual cis-en %60 inguruk uste duela jarrera femeninoagoak duten gizonak kolektiboaren irudi txarra ematen dutela.

**Lengoaiak eraikuntza identitarioan eta harreman homosexualetan duen garrantzia ez ere jardun zenuen. Zergatik da hain garrantzitsua lengoia?**  
Nire tesia queer teoriaren barruan kokatzen da eta teoria horrek lengoia aztertzen du. Lengoiaren bitartez boterea igortzen da, lengoaiak erreali-

tatea eraikitzen eta izendatzen duelako. Egunerokotasunera eramanez, adibidez, lengoiairekin pertsona bat seinatu egin dezakegu eta, horrela, pertsona horri zer izan behar den zehazten diogu, mugak ezarriz. Norbaiti irain bezala marixua dela esaten badiogu, beraz ere den izan behar ikasten du. Beraz, lengoia guztiz aldatu behar-ko genuke.

### Medikuntza aipatu duzu identitatearen eraikuntzaren gako bezala. Zergatik?

Zientzia edozein gauzaren gainetik jarri dugu, egiaren sortzaile bakar bezala, baina kritikoak izan behar dugu zientziarekin, kalte handiak sortu dituelako. Adibidez, gaixotzat jotzen LGTBIQA+ kolektiboko pertsonak, baita emakumeak gizonen azpitik daudela esanez edota diskurtso arrazistak ahalbidetuz ere, beste hainbat gauzen artean.

### Gizartean segurutzat ematen diren gauzak zalantzan jartze-ko prest gaude?

Pertsonak sobera adimentsuak gara, baina askotan nahiago dugu gauzak esaten diguten modukoak direla pentsatzea guztia birplanteatzen hastea baino. Medikuntza, nondik gatozen, gure izaera nola erai-ki den... Zaila da hori guztia birplanteatzea, ezarritako arauak eta logika apurtzea eta, gainera, energia asko eskatzen du, baina egin beharra dago. Ez dugu normaltasun berririk nahi, normaltasuna apurtu nahi dugu pertsonen euren identitateak esperimendatzeko.

### Nola egin daiteke aurre gizartean eta pertsona bakoitzarengan ezarritako araei?

Borroka asko dago egiteko. Kolektiboek espazioak, eskubideak, identitateak... aldarrikatu behar ditugu, baina ezin dugu egunerokotasuna ahaztu. Gure inguruan duguna edo gu geu nolakoak garen aztertu behar dugu. Zenbat eta pribilegio gehiago izan, orduan eta gehiago dekonstruitu behar zara. Horregatik garrantzitsua da gure egoeraz jabetzea eta ardurak hartzea.

**FUNEUSKADI**  
Grupo Añeloa

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeuskadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

|                                      |                                                                                |
|--------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------|
| Eibar:<br>Otaola, 27                 | Elgoibar:<br>Xoilion, s/n. SIGMA Industrialdea<br>(Olasoko hilerriaren ondoan) |
| Eibarko bulegoa:<br>Bidebarrieta, 20 | Ermuako bulegoa:<br>Marqués de Valdespina, 16                                  |

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

**E. IBONE ESTETIKA**

☎ 943 20 16 01    📍 ROMUALDO GALDOS, 10B

– LASER DIODOA –  
– INDIBA –  
– MIKROPIGMENTAZIOA –  
– gorputz eta aurpegi tratamenduak –  
– manikura, pedicura, ... –



# Seme-alabekin euskaraz

Atzerritik etorri direlako, aspaldi erabili barik egoteagatik galdu egin dutelako edo beste edozein arrazoiengatik, asko dira euskaraz berba egiten ez dakiten gurasoak. Arazo hori konpontzeko asmoz, Eibarko Udalak 'Gurasoak ere eskolara' egitasmoa jarri zuen martxan orain dela hainbat urte eta ordutik asko dira euren seme-alabekin euskarazko harremana hasi duten gurasoak.

**G**urasoak ere eskolara' gurasoek euskara ikasteko egitasmoa da. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umeen gurasoei zuzendua dago eta gurasoek euskara praktikoa ikastea da helburua, umeen euskalduntze egokian bidelagun izan daitezten.

Klaseak astean bi egunetan izaten dira, gehienetan umeen eskola ordutegian (goizez edo arratsaldean) eta azarotik maiatzera egiten da. Hala ere, eskola ordutegian kanpo ere taldeak sortu daitezke interesik egonez gero.

Izena emateko epea urriaren 21ean amaituko da eta 943 70 84 26 (Junkal) telefonora deituta edo euskara@eibar.eus helbidera idatzita apuntatu daiteke. Ikasturte osoko matrikula 66 eurokoa da eta RGIA jasotzen dutenek 33 euro ordaindu beharko dute. Gainera, epeka ere ordaindu daiteke.

**Euskarazko testuak irakurtzen**  
Monica Villalba jatorri ekuadortarreko eibartarra da eta

Urkiuz eskolan ikasten duen 10 urteko alaba dauka. Hiru urtez hartu du parte 'Gurasoak ere eskolara' egitasmoan eta oso pozik dago esperientziarekin. "Alaba Lehen Hezkuntzan hasi zenean etxeko lanak egiten lagundu nahi nion eta, den-dena euskaraz dagoenez, euskara ikasi behar nuela konturatu nintzen", azaldu digu.

Monica pertsona nagusiak zaintzen ibili izan da eta bazezkiezen euskarazko pare bat berba, baina hasieran ia dena berria berarentzat. Hasiera ez zen erraza izan, amore ematekotan egon zen, baina poliki-poliki egokitzen joan zen, aurrera egin zuen eta euskara gustatzen hasi zitzaion. "Berkak, aditzak, hiztegia... ikasten genituen", dio.

Lehen urtean hizkuntzaren nondik norakoak ezagutu zituen eta bigarren urtetik aurrera alabarekin euskaraz aritzeko moduko maila lortu zuen. "Demaseko aldea igarri dut lehen urtetik hirugarrenera", aitortzen du, "orain ez dut euskaraz bikain egiten, baina

**Urriaren 21era arte eman daiteke izena 'Gurasoak ere eskolara' egitasmoan**

testuak irakurri eta ulertu ditzaket". Eta bitxitasun bat kontatu digu horren harira: "Orain dela hamar urte...eta kitto!-ren kaleko inkesta egin zenidaten eta orduan aldizkarian irakurri nuenean ez nuen ezer ulertu, baina orain ulertzeko gai naiz. Asko pozten nau horrek".

**Euskara berreskuratzen**

Rebeca Gutierrezek 8 eta 11 urteko seme-alabak ditu San Andres eskolan. "1975ean jaio nintzen eta hemen hazi naiz, baina guk euskara beste ikasgai bat bezala ikasi genuen eta eskolatik kanpo ez nuen erabiltzen. Beraz, galdu egin nuen", esan

**Klaseak astean birritan egiten dira, umeen eskola ordutegian**

digu. Orain, seme-alabak hazten joan diren neurrian, "etxeko lanekin laguntzeko euskara maila handiagoa behar nuela ikusi nuen".

Bi urte egin ditu 'Gurasoak ere eskolara' programan eta esperientziak zapore gazi-gozoa laga dio. "Lehenengo urtea bikaina izan zen eta euskara maila hobetu nuen. Mikel Arri-llaga irakaslea oso motibatzailea izan zen. Bigarren urtean, ordea, irakaslea oso jatorra zen, baina hasiberria, eta igarri egin zen. Gainera, konfinamendua ezarri zuten eta ordutik ez genuen ezer egin", kontatu digunez.





Programako hainbat gauza moldatu egingo lituzke. “Klase berean euskara maila ezberdineko jendea elkartzen gara. Batzuek ez dakite ezer eta beste batzuek badakigu euskaraz egiten, nahiz eta oso maila baxuan

izan. Beraz, guretzat zenbakiak edo horrelakoak ikastea etsigarria da. Irakaslearentzat ere zaila da egoera horretan klaseak ematea”, dio.

Rebecari, bestalde, harritu egiten dio bere eskolan hain

jende gutxi izena eman izana eta izena ematen duten batzuek izaten duten informaltasuna. “Iaz, urtarriletik konfinamendura arte klase erdietan ni bakarrik egon nintzen irakaslearekin eta, ho-

rrela, irakasleek motibazioa galtzen dute”, dio. “Bestalde, hain talde txikiak izanda, irakasleek arreta pertsonalizatua eskaintzen dizute eta horrek asko laguntzen du euskara ikasteko orduan”. ■

## Gabonetako OTARRA



**Gabonetako OTARRA**  
Prezioa: 1€  
Zukiko 2020ko abenduaren hiru eguneko da

**Gabonetako OTARRA**  
**1.500 €ko**  
balioa duen Otarra  
(1.000€ produktuetan eta 500€ko produktuetan)

Prezioa: 1€  
Zukiko 2020ko abenduaren hiru eguneko da



**eta kitto!**  
Euskara Eskutzea  
Iraketa, irakuntza, iraketa eta iraketa




**— salmenta lekuak —**

- ARRIOLA PRENTSA
- ECHETTO PRENTSA
- ARRIAUNDI OKINDEGIA
- OTEGI HARATEGIA

- MARIA OSPITXAL
- AMETSA TABERNA
- GURIDI TABERNA
- IZADI LORADENDA



Eibarko gazteenak jantzen jarraitzen dugu

ume eta gazte  
**Kopina**  
moda

San Agustin, 3  
943 204181

 @kopina\_moda  
 /kopinamoda



## Herri akusazioa, Zaldibar argitzeko

Astelehen goizean Durangoko Epaitegi parean egin zuten prentsaurrekoan, Zaldibarko zabortegiaren auzian herri akusazio bezala aurkeztuko direla adierazi zuten Zaldibar Argitu plataformak eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak. Bi eragileek azpimarratu zuten, herritarrek auzian “ahots propioa” izatea garrantzitsua da. Zaldibarko zabortegiari lotutako auzibidea Durangoko epaitegian dago zabalik, bi delituren inguruan: bata, luiziarena; eta Joaquin Beltran eta Alberto Sololuzeren heriotzari buruzkoa bestea.

**M**artitzenean, urriaren 6an bete ziren zortzi hilabete zabortegia amildu zenetik eta, bezperako agerraldian herri plataformako kideek esan zuten, “orain arte, lurpean zeuden bi pertsonak aurkitzeko lanetan jarraitzeko, herritarren osasuna bermatzeko eta erantzukizun politiko guztiak argitzeko kalean egon gara, mobilizazio ezberdinen bidez gure haserrea eta aldarrikapenak erakutsi nahirik”.

Aste honetako ekitaldiarekin, berriz, beste pauso bat aurrera eman nahi izan dute Zaldibar Argitu herri plataformak eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak: “Agerraldi bateratua egitea adostu dugu, kalean erakutsitako kezka eta indarra epaitegiatar eramateko garaia baita. Oraindik orain, bai enpresaren jabeak eta bai zabortegiaren gaineko kudeaketa negargarrian ardura zuzena duten erakunde publikoak eskuak garbitu nahian dabilta.

Uste dugu, herri konpromisoa-gatik eta gertaeraren larritasunagatik, herritarren ahotsa epaiketean presente egon behar dela, interes orokorraren alde egingo duen begirada batetik”.

Arazoi horienagatik eta, batez ere, “erantzukizunak argitzeko”, erabaki dute herri akusazio modura aurkeztea Zaldibarko zabortegiaren auziaren gainean egingo den epaiketara: “Katastrofe humano, ekologiko eta sozial honen aurrean erantzukizun zehatzak argitzea eta gertatu denaren gaineko informazio gardena izatea ezinbestekoa da, halakorik berriro gerta ez dadin. Langileek, herritarrok eta ingurugiroak guztion kontura negozioa egiten duten talde klientelarrak gabeko herria merezi dugu, ez diezaiegun utzi lehengo modu berean jokatzen itzultzen, ezer gertatu izan ez balitz bezala eskuak garbitzen”.

Bestalde, epaiketak izango dituen gastuei aurre egiteko, diru-bilketa kanpaina martxan

### Herritarrek ahots propioa izateko eta erantzukizunak argitzeko aurkeztuko dute herri akusazioa



jarriko dutela iragarri dute: “Denon ekarpenak izango dira ongi etorriak, bakoitzak ahal duen neurrian eta moduan. Herritarrok prozesu guzti honetan ahots propioa izatea oso garrantzitsua izango da”. Ildo horretan, Zaldibar Argitu plataformak lanean jarraituko du eta hurrengo bilera irekia datorren eguaztenerako (hilak 14) deitu dute, 19:00etan Arrate Kultur Elkartearen lokalean.

Verter Recycling enpresaren aurkako bi prozedurak auzibide berean daude abuztu erdialdetik eta Durangoko lehen instrukzio epaitegia ari da bien inguruko ikerketa egiten. Izan ere, bi prozedurak batu aurretik, bakoitza bere aldetik hasi ziren ikertzen: lehen instrukzio epaitegiak hartu zuen pertsonen aurkako delitua (Beltranen eta Sololuzeren heriotzari buruzko auzia) eta ingurumen kalteari buruzko ikerketa, berriz, bigarren instrukzio epaitegian ikertzen aritu dira. ■





Azaroaren 5era arteko epea dago lehiaketarako bideoak aurkezteko. Aurten ezin izango da Topaketarik egin, baina sari-banaketa streaming bidez jarraitu ahal izango da eta Sinopsi-lehiaketa ere antolatu dute.

## Beldur Barik jarrera gazteen artean zabaltzeko lehiaketa abian da

Gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko Beldur Barik programaren baitan, aurten ere lehiaketa antolatu dute 12 eta 26 urte bitarteko gazteentzat. Lehiaketak programa horren jarrera ikusarazten duten ikus-entzunezko lanak saritzen ditu eta, beraz, aurkezten diren lanek neska-mutilek ezberdintasun egoerei Beldur Barik jarrrerarekin nola egiten dieten aurre erakutsi beharko dute. Hau da, errespetua, parekide-tasuna, askatasuna eta autonomia, elkarkidetzeta eta indarkeria sexistaren bazterketa irmoa adierazten dituzten jarrerak erakutsi beharko dituzte. Parte hartzeko gehienez hiru minu-

ko iraupena duen bideoa egin eta aurkeztu behar da, Youtube edo Vimeo plataformetara igo eta gero.

Bideoak azaroaren 5era arte aurkeztu daitezke eta parte-hartzeko hiru kategoriatan daude: lehen kategorian, 12-13 urte bitarteko parte-hartzaileak izango dira; bigarren kategorian, 14-18 urte bitartekoak; eta hirugarrenean, 19-26 urte bitarteko gazteak. Urtero bezala, lehiaketan taldeka edo bakarka har daiteke parte (ikastetxe batek, gela batek, elkarte batek, eta abarrek izena eman dezake). Lehiaketako irabazleentzat hainbat sari banatuko dituzte: 1. kategoriako saria (400 euro);

1. kategoriako aipamen berezia (200 euro); 2. kategoriako saria (400 euro); 2. kategoriako aipamen berezia (200 euro); 3. kategoriako saria (400 euro); 3. kategoriako aipamen berezia (200 euro); Ikus-entzunezko lan onenari saria (300 euro); eta parte-hartzeari saria (300 euro). Lehiaketari buruzko informazio zehatza [www.beldurbarik.eus](http://www.beldurbarik.eus) helbidean begiratu daiteke.

Koronabirusa dela eta, aurten ezin izango dute Topaketarik antolatu, baina streaming bidez zuzen-zuzenean jarraitu ahal izango den sari-banaketa berezia egingo dela aurreratu dute. Eta aurten Sinopsi-lehia-



keta ere egingo da. Bideoetan bezala, Beldur Barik jarrera erakusten duen testuarekin (200 berba gehienez) har daiteke parte lehiaketan. Idatzitakoa [komunikazioa@beldurbarik.eus](mailto:komunikazioa@beldurbarik.eus) helbidera bidali behar da, gaian "Sinopsi lehiaketa" adierazita eta lanak jasotzeko azken eguna urriaren 22a izango da. Irabazlea zein den urriaren 27an emango dute ezagutzera, Beldur Barik programaren sare sozialetan.



**elite**  
EQUIPAMIENTO DE OFICINAS

# eskolara buelta?

Eskola-materiala, papertegia, motxilak, idazmahaiak, aukiak...

**BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA**

Isasi, 29 943-200030 [elite@eliteoficinas.es](mailto:elite@eliteoficinas.es) [www.eliteoficinas.es](http://www.eliteoficinas.es)



Davide Cerchi

DABIDZS SRSRHI



Asier Ezenarro

ASIER EZENARRO

## Hiri-orbainak

"Los héroes son todos jóvenes y hermosos" abesten zuen gutxi gorabehera garai berean Francesco Guccini italiar kantautoreak bere abestirik ospetsuenetako batean, eta gauza bera pentsatzen dut Karmen kaleko plaka batean mutil baten aurpegia ikusten dudanean. Hiri guztiek dituzte orbain txiki edo handiak, batzuetan ez ikusteko modukoak, eta bizitzen dugun denboraren bizitza gorabeheratsuan pazientzia pixka bat izan behar dugu, burua altxatu eta inguruan daukaguna nabaritu. Urkizutik Azitainera, Karmen bidetik, handik gutxira eliza batekin topo egiten duzu, eskuinetara errepide bat (Iparragirre kalea), aldapan gora, gaztetxe bat nabarmentzen den lekuan.

**"Hemen nago plakaren aurrean, baina, egia esan, bertan nago, abenduko egun hotz eta euritsu batean; greba orokor bat, polizia tiro egiten..."**

Bi eraikinak, eliza eta gaztetxea, eta bi kaleak lotzeko, eskailera txiki bat, bidearen erdian plaka bat, izen, aurpegi eta data batekin, joan den mendekoa, 1970ekoa...

Aurpegi horri begiratzeko denbora apur bat hartu, Whatsapp bat gora eta Instagram bat beheara, beste aro bateko aurpegia da; garai batean jende askok sentimendu komun bat zuen; garai batean lorpen sozial guztiak eta gertaera ekonomikoak ahaleginaren, sakrifizioaren, borrokaren eta herri-elkartasunaren bidez gertatu ziren. Beraz, hemen nago plakaren aurrean, baina, egia esan, bertan nago, abenduko egun hotz eta euritsu batean; greba orokor bat, poliziak bereizi gabe kargatu eta tiro egiten dio jendetzari. Plakak, bien bitartean, azkeneraino arreratzten den mutiko hau, gizakia zer den gogorarazten digu 50 urte geroago. Roberto Perez Jauregiren omenez, Francoren poliziak eraila eta horregatik inork kartzelan egun bat ere egin ez duenean.

## Roma, Patria

Aspalditik ez nuela telesail bat jarraitzen, baina aurtengo egoera berezi honetan, konfinamenduarekin, denbora asko izan dut produktu berriak ikusteko. Sail pila bat daude kate publiko eta pribatuetan. Eta orain askoz gehiago sortu dituzte, HBO-n, Netflix-en edo Movistar-en eskaintzen direnekin.

**"Eleberri onena ere ez da nahikoa izango azken 50 urteotan gertatutakoa ulertzeko"**

Ez dira gutxi komisaldietan giroturik daudenak: adibidez, "El Padre de Caín" Intxaurrendoko kuartelean kokaturikoa da eta Rafael Verak idatzitako eleberri batean onarrituta. Cain, jakina, ETako kide bat da telesailean. Nor izango da Abel errugabea? Bertako agintean egon zen Galindo jenerala agian? Horrelako sailak txiro-zopa aspergarriak besterik ez dira, nire ustez; horrez gain, Espainiako aktore gazteekin arazoa dut: ez diet erdia ulertzen. Non demontre ikasi dute ahoskatzeko eta antzetzeko?

Horregatik erabaki nuen "Roma" saila erostea. Han kontaktzen dena guztiok irakurri dugu, edo beste pelikuletan ikusi: erromatar errepublikaren azken egunak eta gerra zibila. Julio Cesar, Pompeyo, Octavio Augusto, Marco Antonio eta Cleopatra. Jauregiko barne liskarrak, ezpata borrokak eta erotismoa. Gutxienez, aktore hobeak dira Espainiako sailekoak baino, eta urletzen zaie hitz egiterakoan. Seguru hobe dela Tacito, Arnold Toynbee edo Gibbonen liburuak irakurtzea erromatarren historia ezagutzeko, baina noizbehinka eskertzen dira ondo osaturiko filmak.

Eta, noski, "Patria" ospetsua. Egunkari, telebista eta irrati guztietan egin diote publizitatea Fernando Aranbururen liburuari eta Soraluzen filmatu den sailari. Ez dut ikusi ezta liburuak irakurri ere. Eleberri onena ere ez da nahikoa izango azken 50 urteotan gertatutakoa ulertzeko. Lagundu dezake, baina eleberriak beti izango du muga bat: kontakizun bat da eta ez egi borobila.

ETako biktimen sufrimendua erakustea errespetagarria izan daiteke, baina horrek ez du esan nahi pelikula horrek gertatutakoaren egia osoa erakusten duenik. Horretarako, nahiago dut Cleopatraren edertasuna mirestea.



# Kultura dastatzeko modu berriak bilatzen herriko kultur guneetan

“Kultura segurua da” diote, behin eta berriz, kultur eragile, sortzaile eta abarrek. Eta, datuen arabera, hala da. Ez da koronabirus kasurik eman kultur emanaldietan eta kultura kontsumitzeko ezarri diren segurtasun neurriei esker gertatu da hori neurri handi batean. Antzoki, zinema eta aretoek goitik behera aldatu dute euren itxura, kultura segurua eskaintzeko. Zinea, musika eta antzerkia berriz iritsi dira Coliseora eta Portaleko areto nagusira, kulturari ezin zaizkiolako mugarik jarri. Kulturaren egarria asetu dezakegu orain, nahiz eta zurrupada txikietan izan.

**T**eknologia berriek mila aukera eskaintzen dizkigute. Adibidez, gure egongelatik momentu berean Sidney-n jotzen diharduen talde baten kontzertua ikusi dezakegu zuzenean. Baina ez da gauza bera. Kulturak beste zapora bat du hurbil sentitzen duzunean, musikariari begietara begiratu ahal dionzunean, aktorearen negarrak hunkitzen zaituenean edo koadro baten xehetasun txikiak aurkitzean. Konfinamenduak guzti hori kendu zigun, baina poliki-poliki berreskuratzen goaz.

Udako eguraldia aprobetxatuz Udaleko kultura sailak hainbat ekintza antolatu zituen uztailean eta abuztuan. Aire librean egin ziren (Coliseoan egin zen bat kenduta), baina zelaiari atek jarri behar izan zizkioten birus dioxosoa gure artean ez zabaltzeko. Arduradunak nahiko pozik geratu ziren egindakoarekin eta jendearen jarrerarekin, baina udazkenaren hasierarekin beste erronka bat aurkeztu zitzairen: areto barruko ikuskizunak nola egin antolatzea.

Sarreran gel hidroalkoholikoa jartzeaz eta areto barruan mugitzeko zirkuituak ezartzeaz gain, Jose Luis Gonzalez ‘Poxpolo’ Udaleko kultura teknikariak esan digunez, bi arau jarraitu behar izan dituzte areto itxietan egin beharreko ikuskizunak antolatzeko. Batetik,



**Coliseoko aforoa 270 eta 131 ikusle artekoa da orain, eta Portaleko Areto Nagusiko aforoa 58 eta 29 artekoa**

aforoa %60ra jaitsi behar dute. Eta, bestetik, ikusleen arteko distantzia 1,5 metrokoa izan behar da gutxienez; “edo, 1,5 metro laga beharrean, Eusko Jaurlaritzak dio aukerako neurri fisikoak erabiltzeko”, Gonzalezek berbetan. “Zalantzak ditugu aukerako neurri fisikoak zeintzuk diren zehazteko orduan eta antzoki bakoitzak bere modura aplikatu ditu neurriak”.

## Aforo aldakorra

Azken asteotan zine-emanaldiak eskaintzen hasi dira, areto nagusian antzerkiak eta kontzertuak egin dira, eta kultura sailak dama-aula hartu zuen oinarri publikoa kokatzeko orduan. “Horrela, norbaitek bere tokia erreserbatzen du eta alboko aulkiak libre gelditzen dira. Banan-banan joanez gero ez dago arazorik, baina bizikideekin joaterako orduan dama-aula apurtu egiten da”, dio Gonzalezek. “Jende asko joan den ikuskizunetan jendearen artean espazioa falta zela zirudien”, bere ustez. Beraz, lehen egunetako esperientzia aintzat hartuta, metodoa aldatu dute berriki. Orain, jendearen artean lerro bateko distantziari eusten zaio gutxienez eta, ikuskizunera joan nahi duen jendea (bi pertsonako talde bat, lau lagun, sei...) lerro bakoitzean kokatzen dituzte euren arteko segurtasun distantziari eutsiz (hurrengo orriko planoan ikusi daiteke hobeto).

Coliseoak, berez, 504 ikuslerentzako tokia du eta, aforoa %60ra jaitsiz gero, 302 koa izango litzateke. Segurtasun distantziak, ordea, kopurua gehiago jaisten du eta, Udalak ezarritako metodoaren arabera, inoiz ezin denez zehatz mehatz jakin zenbat lagun sartu ahal izango diren, gehiengo eta gutxiengo aforoak zeintzuk diren dakigu bakarrik. Horrela, Coliseoko areto nagusiko gehiengo aforo 270koa da eta gutxiengoa 131koa (hau da, eduki osoaren %26); 1. zine aretoko aforo maximoa 39, eta minimoa 21; eta 2. zine aretoko maximoa 43, eta minimoa 21.



Publikoaz gain, Cielito Musika Bandako musikariek ere segurtasun distantziari eutsi behar diote eszenatokian.



#### AFOROAK

- Coliseoko areto nagusia: 270 - 131.
- Coliseoko 1. zine aretoa: 39 - 21.
- Coliseoko 2. zine aretoa: 43 - 21
- Portaleko areto nagusia: 58 - 29.

#### SARREREN SALMENTA

- Coliseo antzokiko leihatilan, astelehen eta ostiraletan (17:30 - 19:30) eta hasi baino ordu erdi lehenago.
- Kutxabanken bitartez.



Zalantzarik egon ez dadin, zintak jarri dituzte aulkietan, bertan eseri ezin daitekeela argi geratzeko.

Agerikoak direnez gain, beste zein eragozpen sortzen ditu metodo honek? Gonzalezek du erantzuna: "Adibidez, azaroan Izaro dator eta egoera arrunt batean Coliseoa bete egingo litzateke. Egoera honetan, aldiz, 200 inguru bakarrik joan ahal izango dira eta diru gutxiago bilduko dugu". Eta egoera horrelakoa dela jakinda, ezin dira bi saio egin? "Zinearekin ez dago arazorik eta bi astez jarraian pelikula bera eskaini dezakegu, baina antzezlanak eta kontzertuak beste kontu bat dira, artisten agendaren

arabera moldatzen garelako", dio kultura teknikariak.

Portalean, bestetik, murriztu egin behar izan dute areto nagusiko aforoa eta, orain, 58 sartu daitezke gehienez eta 29 gutxienez. Erakusketa aretoari dagokionez, ordea, ez dago hainbeste arazorik. "Nahiz eta aforoa mugatu, erakusketak hainbat astetan egoten dira ikusgai eta ez da jende pilaketarik egoten", Gonzalezen berbetan.

**Agendari eusteko konpromisoa**  
Pandemiak erditik moztu zuen

Kultura Sailak aurretik zehaztuta zuen agenda, baina hitzartuta zutena eskaintzeko asmoa dutela berretsi du Gonzalezek. "Kultura munduko jendearekin konpromisoa dugu eta gure antzerki taldeak, aktoreak, teknikariak ekartzen saiatu behar gara kultura berpizteko", bere berbetan. "Aurrez adostutako programazioari eustea da Udalaren apustua. Iazko irailean eta aurten egin diren ikuskizun kopuruak alderatuz gero, antzekoak direla ikusiko dugu. Aretoetako aforoak eta kaleko ekitaldiak dira ezberdintasun

**OHARRA**  
Banaketa-zerrenda berritzen ari gara. Aldizkaria jasotzeko edo jasotzen jarraitzeko eman izena beheko zerrendan

**eta kitto!**  
Astekaria

Izen-abizenak



...eta kitto! **astekariko**

## ETXERIK ETXEKO BANAKETA-ZERRENDA BERRITZEN DIHARDUGU


Eibarko etxeetan aldizkaria **JASOTZEKO** edo **JASOTZEN JARRAITZEKO** zerrendak bete behar dituzue.

Hurrengo asteetan kale hauetako pegoretan jarriko dira orriak:

**JULIAN ETXEBERRIA - ZULOAGATARREN - SANSABURU - ERREKATXU - BIDEBARRIETA - URTZAILE - ARANE**

**banaketa.etakitto@gmail.com**





nagusiak, moldatu edo bertan behera geratu direlako”.

Konfinamenduaren ondorioz 30 kultur ekitaldi inguru geratu ziren bertan behera, baina Gonzalezek dioenez, “horietako batzuk moldatu edo berresku-

ratu ahal izan ditugu, baina ez denak”.

Hala edo nola, areto barruko ikuskizunak ikusten jarraitu ahal izango dugu, baina momentuz ahaztu gaitezen jai giroan egiten diren kaleko ikus-

kizunez. “Erromeriak, festak, rock kontzertuak... horrelako saioak ikusteko barneratuta genituen moduak aldatu egin dira eta momentuak seriotasunez jardutea eskatzen digu”, bere ustez. “Jaietako mundua

kulturarekin lotzen dut beti eta hor daude artistak, teknikariak, laguntzaileak... Asko galtzen ari dira eta zaila izango da berreskuratzea. Berriz hausnartu behar dugu mundu horren inguruan”.



# 2021eko gida prestatzen dihardugu

# Eibarren  
badakagu

[publizitatea@etakitto.eus](mailto:publizitatea@etakitto.eus)  
[etakitto.eus/mediateka/gida-komertziala](http://etakitto.eus/mediateka/gida-komertziala)





## Euskararen erabileran eragiteko motibazio-saioak eskoletan

...eta kitto! Euskara Elkarteak urteak daramatza euskararen erabilera areagotzeko motibazio- saioak ematen. Azkeneko urteotan, Eibarko Udalaren Euskara Zerbitzuak hala eskatuta, DBH 1 mailako ikasleei eta Lanbide Heziketako hainbat ziklotako ikasleei zuzendutako saioak ere ematen ditu, Aina Lavado Elkarteko normalizazio-arduradunak.

**D**udarik ez dago adin tarte estrategikoa dela nerabezaroa. Aldaketa handiko sasoia da eta ez aldaketa fisikoa bakarrik, baita aldaketa sozialena ere. Ikastetxe berri batean hasi, lagun berriak ezagutu, edota lan munduarekin harremana izaten hasten dira gazteak, eta orduan nabarmena da euskararen erabileran gertatzen den beherakada.

Ainara Lavadok adierazi duenez, “11- 12 urtetik aurrera umeen inguru soziala asko zabaltzen da: ikastetxe berria, arau berriak eta haurtzaroa atzean lagatzen ari diren sentsazioa ere izaten dute. Maila handi batean hala da. Gero eta erabaki gehiago hartzen dituzte euren kabuz, gurasoen erreferentziak edo ereduak ez du lehengo pisurik, eta lagun-taldeak, hau da, beste gazte batzuk izaten dira erreferenteak eurontzat. Era berean, umetan esan zaien inkoherezia batekin egiten dute topo; izan ere, euskaraz jarduteko eskatzen



Aste honetan Unibertsitate Laboraleko ikasleek jaso dituzte saioak.

diegu, baina `helduen mundua´ oso erdalduna da: kirol mundua (batez ere eliteko kirol majoritarioa), lan mundua, kaleko giroa... Euskara infantilizatuta dagoela ematen du eta `handitan´ ezer gutxirako balio duela”.

Normalizazio-arduradunak dioenez, erronka handia dugu gizarte moduan, euskara prestigioatzen ez dugun bitartean inkoherezia hori saltzen aritu gara gure umeei, “baina prestigioatzeko futboleak, tenisean,

bulegoan, tailerrean, poteoan, unibertsitatean, lanbide-heziketan... Euskaraz jarduten dugula `erakutsi´ behar diegu”.

Beste alde batetik, heldutasunerako bide horretan gero eta erabaki gehiago hartuko dituzte euren kabuz eta euren nortasuna eratzeko joango dira. “Zein hizkuntza erabili nahi dugun hautua dela konturatzea oso garrantzitsua da, sarritan ez dira konturatzen -helduok konturatzen ez garen bezala-

etsi eta gaztelerara pasatu direla; edota kostata ulertzen duen horri gazteleraz eginez gero ez diotela inolako mesederik egiten, edota Dereduan ikasiz gero euskara gaitasuna hobetu eta euron harremanak euskaraz izaten jarraitzeko aukera gehiago izango dutela”.

Garrantzitsua da argudio guztiak erabiltzea, baita instrumental ere, hau da, ikasketak euskaraz egiteak ekonomikoki edo lan mundura begira zein onura ekarriko dieten galdeztzen dutenei erantzuten bat ematea ere. Eta erantzuna, Ainararen hitzetan, ez da batere zaila: “Bertako hizkuntza izateaz gain, lanpostu publikoetan gutxieneko ezagutza eskatuko diete, enpresa pribatu erreferentzialenak euskara-planak dituzte eta euskaraz lan egitea bilatzen dute... Onurak besterik ez duen gauza bat da”.

Azaroan amaituko ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak Eibarko ikastetxeetan emango dituen saioak. ■





# Eibartarrok ez diogu kalerik egin Sagardo Egunari

Beste modu batera, hori bai, baina aurtengo Sagardo Eguna gogoan izan dute askok, eta ospatu ere ospatu dute. Eibartarrentzat hain esanguratsua den egunik gabe ez dute gelditu nahi izan, eta etxean, jatetxe batean edo elkarte gastronomikoan edalontzia sagardoz bete eta txotx egin dute.

**U**ntzagan beharko lukeen jaia beste era batera ospatu behar izan dugu eibartarrok, halaberrez, nork bere kontura. Etxekoekin elkartu dira batzuk, etxean, eta beste batzuk elkarte gastronomikoak edo jatetxeren bat aukeratu dute eguna behar bezala ospatzeko; Untzaga plazak ez ditu aurten elkartu, baina guztiek eutsi nahi izan diote Sagardo Egunaren esentziari. Txuletarik ez da falta izan, ezta bakailao-tortilarik ere; Sagardo Eguneko zapiari keinu egin diote eta, jakina, sagardoa izan da jaun eta jabe.

Jakin badakigu orri honetan agertzen direnak baino askoz gehiagok ospatu duzuela aurtengo Sagardo Eguna. Gure aldetik, eskerrak eman nahi dizkiegu Anartz, Gorka, Oier eta Unairi euren ospakizuna gurekin partekatzearen.

**Egun kuttuna eibartarrentzat**  
Horixe adierazi izan dute behintzat eibartarrek urtero-urtero

Sagardo Egunean. Egun kuttuna dela eurentzat eta modu berezian bizi dutela. Untzaga plaza eta herria bera ikustea besterik ez dugu, eibartarrentzat zein egun berezia den ulertzeko. Urriko lehenengo zapatua gorritz markatuta dute askok egutegian, urriko lehenengo zapatuan antolatzen baitu ...eta kitto!-k Sagardo Eguna, eta eguna noiz iritsiko zain irrikitan egoten dira asko eta asko.

**Zutabe sendoa elkartearentzat**  
Oinarrizko ekitaldi bilakatu da Sagardo Eguna ...eta kitto!-rentzat, hainbat arrazoi-rengatik: batetik, herria eta elkartearen artean sortzen den konexioarengatik eta kohesioarengatik. Esan daiteke egun horretan herri osoak egiten duela bat Elkarteak eskaintzen dion ekitaldiarekin, eta babes hori sentitzeak indarra ematen dio ...etakitto!-ri bere jardunarekin jarraitzeko; bestetik, azpimarratzekoa da egun horretan Untzagan ez eze bai-



ta herri osoan ere sortzen den euskal giroa; esanguratsua da euskararen erabilera zenbat hazten den egun horretan herrian; eta, azkenik, ezin dugu ahaztu Sagardo Eguna sostengu ekonomiko garrantzitsua dela elkartearentzat eta, zoritxarrez, Sagardo Eguna bezala diru-iturri diren beste hainbat

ekitaldi ere bidean gelditu zaizkigula aurten; hor ditugu Arrateko Kittonbola eta azaroan egitekoa zen Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna. Baina Elkarteak bizirik jarraitzen du, burubelarri lanean, ekitaldi horietatik sartu ezin daitekeena beste bide batzuetatik lortzeko ahaleginean. ■

>>> Errioxako lurretan Asfaltos Redondo Solozabal Navarrete igo berriari 24-37 irabazita, markagailuan izandako alde horrek 1. Maila Nazionalako multzo horretako lidergoa eman zion Eibarko taldeari. Fernando Fernandezek mutilek garaipen garbia lortu zuten, batez ere taldera itzulitako jokalarien lanari esker: Lander Casadok hamar gol sartu zituen eta Ballesteros atezainak geldialdi bikainekin debutatu zuen. Bihar arratsaldeko 18:00etan hasiko den norgehiagokan Egia - Tela Fabrika talde donostiarra hartuko dute Ipurua kiroldegian. Egiak ere lehenengoko bi puntuak eskuratu zituen ligako lehen jardunaldian, Iruñeako Jacar San Antoniori 29-23 irabazita Donostian jokaturako partiduan.

## Hierros Servando Eibarrek lidergoa lortu du 1. Maila Nazionalako liga hasieran



Ballesteros atezainak oso partidua serioa egin zuen Navarretearen aurka.

Eibar Eskubaloiko beste taldeei dagokienez, Hierros Servandoren bigarren taldeak sei goleko aldeaz irabazi zuen Elgoibarren (29-35) eta emakumezkoen Mecalbe taldeak ere garaipen eroso lortu zuen Errotabarri Urdinaren aurrean (26-19).

### Agifes-ekin elkarlana

Buru osasun arazoak duten lagunen eta haien senideen Gipuzkoako elkarteak eta gure herriko eskubaloi klubak aurtengo denboraldiko bidaia elkarrekin egitea adostu dute. Modu horretan, Agifes osatzen duten taldekideek Eibar Eskubaloiko taldeek asteburuetan jokatu beharreko partiduak jasotzen dituzten kartelak jarriko dituzte Eibarren zehar.

## Goyo Zabaloy Avia Eibar Rugby taldera itzuli da denboraldi berriari taldea indartzeko

>>> Herriko errugbiko talde nagusiak oraindik nondik nora joko duen ez dakien denboraldi berria prestatzen dihardu eta, horretarako, azken urteotako estutasunei aurre egiteko eta taldea indartzeko ahaleginean, esperientzia handiko Gregorio Zabaloy fitxatu du. Aurretik ere Eibarko taldearekin jokaturakoa dugu Goyo, Gernika taldearekin Amlin Challenge Cup ospetsuan parte hartu ondoren eta Getxoko lerroetara joan aurretik. Bizkaiko talde horretan

jokatu ditu azken hiru denboraldiak eta oraingoan gurera dator, aspaldiko lagunengana bueltatu eta bere kalitatea eta esperientzia eskaintzeko gogoz. Gaston Ibarburuk zuzentzen duen taldeak Goyorekin beste urrats bat ematen du taldea indartzeko bidean, aurretik Josh eta Grady fitxatuta egindako bide beretik. Aipaturako hiru fitxaketei gehitu behar zaie Franco Maggiolok beste denboraldi batean jokatzeko hartutako konpromisoa.



Denboraldi berrirako egindako hiru fitxaketek taldea indartuko dute.



## Urki-ren talde guztiak motorrak berotzen denboraldiari begira

>>> Urki foball klubeko taldeek euren prestaketa lanekin jarraitzen dute lehiaketarako astebete besterik geratzen ez zaienean. Hilaren 18ko asteburu horretan hasiko dute denboraldia Gorengo mailako taldeak eta Ohorezko Mailan jokatzeko jubenil eta kadete mailakoek. Maila behekoek hurrengo

asteburuan ekingo diete denboraldi berriari, infantil mailako taldeak alde batera lagata (azken horiek baliteke urtarrilean hastea lehian). Aurreko asteburuan jokaturako lagunarte-koetan, Gorengo Erregionaleko Urkik 0-2 irabazi zion Elgoibarri, Leturiaga eta Cristianek sartutako golei esker.



**LALIGA  
2020-21 denboraldia**

- 1 Dmitrovic (ATEZAINA)
- 2 Burgos (ATZELARIA)
- 3 Bigas (ATZELARIA)
- 4 Oliveira (ATZELARIA)
- 5 Martinez (ATZELARIA)
- 6 Sergio (ERDILARIA)
- 7 Quique Glez. (AURRELARIA)
- 8 Diop (ERDILARIA)
- 9 Enrich (AURRELARIA)
- 10 Exposito (ERDILARIA)
- 11 Soares (ATZELARIA)
- 12 Muto (AURRELARIA)
- 13 Yoel (ATEZAINA)
- 14 Inui (ERDILARIA)
- 15 Cote (ATZELARIA)
- 16 Olabe (ERDILARIA)
- 17 Kike Garcia (AURRELARIA)
- 18 Recio (ERDILARIA)
- 19 Kadzior (ERDILARIA)
- 20 Correa (ATZELARIA)
- 21 Pedro Leon (ERDILARIA)
- 22 Pozo (ATZELARIA)
- 23 Arbilla (ATZELARIA)
- 24 Kevin (ATZELARIA)
- 25 Bryan (ERDILARIA)



**Iberdrola Ligan bikain debutatu zuen Eibarrek, Betisi 1-0 irabaziz Unben**

>>> Lehen zatiaren azken jokaldian Jujuba atzelariak lortutako golari esker nagusitu zitzaion Eibar gurera puntuatzeko asmoz etorri zen Sevilako Betis taldeari. Garrantzi handiko garaipena aurreko domekan eskuratutakoa, batez ere Dorronsororen taldeak maila berriari egokitzeko behar duen konfiantzaz jabetzeko. Bihar, ligako bigarren partiduan, eibartarrek Levante talde handiaren zelaian jokatu du dute goizeko

11:30ean. Taldeak, bestalde, Noko Matlou Hegoafrikako atzelari beteranoa fitxatu du.

Gizonezkoen lehen taldeari dagokionez, Mendilibarren mutilek denboraldiko lehen garaipena lortu zuten Valladoliden (1-2), Kevin Rodriguesen azken orduko golarekin. Bestalde, Sevilak lagatako Pozo atzelaria eta Bryan aurrelaria izan dira azken fitxaketak; Tejerok, kontrara, Zaragozako biga hartu du bertan jokatzeko.

**IBERDROLA LIGA  
2020-21 denboraldia**

- 1 Noelia (ATEZAINA)
- 2 Puy (ATZELARIA)
- 3 Queralt (ATZELARIA)
- 4 Napo (ATZELARIA)
- 5 Esti Aizpurua (ATZELARIA)
- 6 M. Llompart (ERDILARIA)
- 7 Arene Altonaga (ERDILARIA)
- 8 Aida (ERDILARIA)
- 9 Miriam Rguez. (AURRELARIA)
- 10 Ruth Alvarez (ATZELARIA)
- 11 Carla Morera (ATZELARIA)
- 12 Charity Adule (AURRELARIA)
- 13 Malena (ATEZAINA)
- 14 Honoka Yonei (ERDILARIA)
- 15 Nerea Gantxagi (ATZELARIA)
- 16 Mar (ERDILARIA)
- 17 Noko Matlou (ATZELARIA)
- 18 Kgatana (AURRELARIA)
- 19 Arola Aparicio (AURRELARIA)
- 20 Jujuba (ATZELARIA)
- 21 Sara Navarro (AURRELARIA)
- 22 Sheila Elorza (ERDILARIA)
- 23 Eider Egaña (ATEZAINA)
- 24 Ane Campos (AURRELARIA)
- 26 Nahia Larrinaga (AURREL)
- 27 Uxue Iparragirre (ATZEL)
- 28 Marta L. Gereñu (ATZEL)
- 29 Irati Martin (AURRELARIA)
- 31 Malen Olañeta (ERDILARIA)



Bryan eta Pozo azken fitxaketak.



**zarelakogara**

Izen-abizenak \_\_\_\_\_ Helbidea \_\_\_\_\_  
 Tfnoa / emaila \_\_\_\_\_ NAN \_\_\_\_\_  
 Jaiotze data \_\_\_\_\_ K/K zenbakia \_\_\_\_\_

**Bazkietza edo ekarpenak egiteko**

| NORK                          | EKARPENA | ERRENTAN ITZULKETA | BENETAKO KOSTUA |
|-------------------------------|----------|--------------------|-----------------|
| Umeak (16 urtetik beherakoak) | 5 €      | 1,5 €              | 3,5 €           |
| Ikasle, langabetu, jubilatua  | 15 €     | 4,5 €              | 11,5 €          |
| Langileak                     | 45 €     | 13,5 €             | 31,5 €          |
| Beste ekarpen batzuk          | 160 €    | 45 €               | 115 €           |

**...eta kitto!**  
**Euskara Elkartea**

**Urkizu 11**  
943 20 09 18 - 943 20 67 76  
elkartea@etakitto.eus

\* Urteko kopurak dira



## 56 parte-hartzaile izan zituen Simon Aldazabal Sariaren 25. edizioak

>>> Inoiz baino beranduago jokotutako edizioak 56 atleta eraman zituen Klub Deportiboaren aurretik Arrateko zelaietaraino, bitartean bost kilometro eta erdiko ibilbidea burutu eta gero. Pello Osoro gizonetzkoetan eta Maria Gallastegi emakumezkoetan izan ziren aurreko domekako irabazleak, bakoitza bere mailan.

Osorok 26 minutu eta 17 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko eta Pello Berrizbeitia (46 segundora) eta Julen Teran (minutu eta 5 segundora) izan zituen atzetik. Lau emakumezkoen parte-hartzea izan zuen Simon Aldazabalek oraingoan eta, Gallastegiren atzetik, Esther Pagei eta Sonia Larrañaga sailkatu ziren.



## Artzaintza Naturbidearen 9. etapa egingo dute Deporrek 17an

>>> Klub Deportiboko mendi batzordeak Artzaintza Naturbidearen beste etapa bat antolatu du hilaren 17rako. Irteera horretan Uharte Arakiletik Lizarrustiraino joango dira, tartean Artxueta gaina (1.345 m) gaindituta. 25 kilometro egingo dituzte egun horretan, "Arakil ibaia zeharkatu, San Miguel santutegira igo, Artxueta

igotzea aukeratu bai edo ez, guardetxetik pista hartu eta, Igaratzarako iturrian elikatu eta hidratatzeko tartea hartu eta gero, Lareoko urtegitik pasatuta Lizarrustira heltzeko". Interesatuak izena eman dezakete Deporren martitzen eta eguenetan (19:30-20:30) edo 943-201904 telefono zenbakira deituta.



## Avia Eibar Saskibaloiak garaipen erraza lortu zuen liga hasieran

>>> Probintziako 2. Mailara igo den taldeak esperotakoa baino garaipen errazagoa eskuratu zuen aurreko zapatuan Ipurua kiroldegian jokotutako ligako lehen jardunaldian. Estreinako partidu horretan eibartarrek 67-47 nagusitu zitzaizaien Cafes Aitona Askatuak B taldeko jokalariei, hasieratik amaierara arte euren alde eta guztiz kontrolatuta izan zuten norgehiagokan. Atsedendian ere markagailuak ondo erakus-

ten zuen eibartarrak agintzen zihoazela, 43-22arekin. Donostiako taldeak jokalaria berri asko ditu eta euren eskarmentu falta nabaritu zen partiduko hainbat fasetan; hala ere, partiduak aurrera egin ahala Avia Eibar Saskibaloioek asko lasaitu zuten euren jokoa eta aldeak ez zuen gora egin. Denboraldi hasiera bikaina, beraz, eibartarrentzat; mailari eusteko egin beharko duten borrokarako oso balio-garria izan daitekeena.



## Waterpoloko Urbatek ezin izan zuten 2. Maila Nazionalera igo

>>> Hurrengo batean izan beharko da, oraingoan larrua garesti ordaindu behar izan bazuten ere, Majadahondakoek faborito ezaugarriari erantzun eta zirt edo zart egin beharrek partidua bereganatzeko. Zapatu arratsaldean Madrillgo 86 Munduko igerilekuan jokotutako neurketan eibartarrek gogor egin zieten madrildarrei eta, amaierarako bi

minuturen faltan, 2. Maila Nazionalera igotzearena ametsa baino gehiago zirudien, errealitate bihurtetik ez hain urrun. Partiduaren hasieran izandako aurkako 1-4koak asko markatu zuten neurketa, baina Davide Cerchiren mutilek gol bakarerra jartzea lortu zuten, azken minutuko madrildarren beste gol batek markagailua behinbetiko 10-8an laga aurretik.



**urriak 11** (EIBAR-Untzaga / EIBAR-Arrate)



GARAILEA



MENDIA



23 URITETIK AZPIKO ONENA



SAIATUENAREN SARIA



SPRINT BEREZIAK



TARTEKO HELMUGAK



LEHEN EUSKALDUNA




KONBINATUA



**TALDEKAKO SAILKAPENA**

- 09:30 Irteera neutralizatu  
Untzagatik Azitainera
- 12:20 Azitaindik sartuta,  
bariantera 113. km.
- 12:25 Ixuarako igoeraren  
hasiera 116. km.
- 13:05 Azitaindik sartuta,  
bariantera 144. km.
- 13:10 Usartzarako igoeraren  
hasiera 146. km.
- 13:20 Helmuga Arraten  
153. km.



**LAGUNTZAILEAK**

- Eibarko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- SD Eibar Fundazioa
- Udal Kirol Patronatua
- Radio SER Eibar
- Izadi Loradenda
- Birjiñape Berria
- Casa Cantabria
- Inpratex
- El Corte Inglés - Eibar
- Goritz Hornikuntzak, S.A.
- Azitain Jatetxea
- S.C.R.G. Bide-Alde

- S.C.R.G. Kamarroak
- Ongi Etorri Kafetegia
- As Burgas Kultur Etxea
- Pneumax
- Kanto Zerbitzu Estazioa
- Oberena Harategia
- El Castillo Hotela
- Ikolan Lanaldi
- Guria Elektrizitatea
- Arkupe Gastro Pub
- Hotel Unzaga Plaza
- Avia
- Naia Car-Kia

- Larragest Inmobiliaria/Aseguruak
- Bista Eder Hortz-klinika
- Garajes Garcia
- Laurel & Hardy
- Ruibal
- Guridi taberna
- Oria Sport Wear, S.L.
- Ixua Hotela
- MTE
- CDR Bicicletas
- Gorla Auto Group
- Alkideba
- Soraluze S. Coop.

<<< ANGEL LOPEZ • Eibarko Txirrindulari Elkarteko presidentea >>>

# “Oraingoan Valenciaga proba streaming bidez jarraitzea eskatzen diegu zaletuei”

Eguaztenean egin zuten probaren aurtengo edizioaren aurkezpena udaletxean, hori ere publiko barik, eta guztia dute prest edizio berezi hau domekan jokoan ipintzeko. Azken ordukoak jakiteko, Angel Lopez Eibarko Txirrindulari Elkarteko presidentearekin izan gara Valenciagaren nondik norakoak jasotzeko. Bere lehenengo legegintzaldia amaitzean dago, baina lau urtekoa luzatzeko asmoa du “gure taldearekin oraindik gauza asko ditugulako egiteko”.

## Zerk animatu zintuzteten azkenean Valenciaga Oroitzarrea jokatzera aurtentzen?

Hasteko, nire lehenengo hitzak COVID-eko biktimentzat, animo eta gure elkartasuna adierazteko. Pandemia hasi zenetik, Espainiako Kopako arduradunek beste egutegi alternatibo bat eskaini ziguten eta guri urriaren 11n egitea suertatu zitzaigun. Eta txirrindularien gogoia eta babesleen beharra kontuan hartuta, lasterketa aurrera ateratzea erabaki genuen, nahiz eta horrek guztiak ikaragarriko ahalegina egitera behartu gaituen antolatzaileoi.

## Zelako zailtasunei egin behar izan diezue aurre proba antolatzeko orduan?

Aurretik gauza pila bat eginda bagenuen ere, esaterako, aldizkaria inprentan zegoen ordurako, zailtasun handiena ziurtasunik ezak ekarri digula esango nuke, lasterketa egitea posible izango zen azken unera arte ez jakiteak.

## Zelako neurriak hartu behar izan dituzue baietza jaso eta aurrera egiteko?

Lehenengo neurria izan zen lasterketaren egitura osoa herritik ateratzea; horrela erabaki genuen proba Azitaingo industriagunean hastea eta, arrazoari berari jarraituz, helmuga Arrateko gainan kokatzea. Bestaldetik, osasun-neurriak ere kontuan hartuko ditugu: goiz hasiko zai-

gu eguna, temperatura neurketak goizeko 07:30etik aurrera egingo ditugu, musukoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da, segurtasun-distantziei eutsiko diegu, eskuen garbiketa beteko dugu, etabar.

## Hortik aparte, zertan aldatuko da lasterketa oraingoan? Mailari eutsiko dio, ezta? Parte hartzean nabarituko da?

Batez ere, aldatetok ibilbidean nabarituko ditugu, azkeneko kilometroak askoz gogorragoak izango direlako; beraz, mailari begiratu nabarmen igoko dela esan genezake. Parte-hartzeari dagokionez, antzerakoa izango dela azpimarratuko nuke: 25 taldetik 20 finakoak izango direlako eta beste bostak gonbidatutakoak. Eibarko lau txirrindulari izango ditugu lasterketan: alde batetik, Debabarrena taldearekin parte hartuko duten Txomin Osoro, Perez de Obanos eta Ander Gutierrez eta, bestetik, Eulen taldearekin jardungo duen Ion Ibarluzea.

## Zenbat txirrindulari hartuko dute parte guztira? Zeintzuk izango dira faborito?

Guztira, 175 txirrindulari izango dira lasterketan. Horietatik, Kopako lehenengoko hirurak bakarrik bost puntuko tartean daude; lehenengo biak Kometa taldekoak dira eta hirugarrenak Lizarterekin korritzen du. Gogorarazi nahiko nuke azken talde horretako txirrindulari

batek irabazi zuela iaz Toribio Etxebarriako helmugan; Iñigo Elosegi orduko garailea profesional mailako txirrindularia da gaur egun, Movistar taldean.

## Zenbat lagun parte-hartzea eskatzen du maila horretako lasterketa bat antolatzeak?

Oso saila izaten da antolaketan lanetan dihardugunok zenbatzea, baina 200 lagun inguru izango gara jo eta ke lanean gabiltzanok... eta ez bakarrik lasterketaren egunean.

## Jendea animatu nahi duzue streaming bidez lasterketa



### **jarraitzera. Aurretik ere erabili duzuen sistema izanda, oraingoan baduzue aurrerapenik eskaintzeko?**

Egun bizi dugun egoerak neurri bereziak hartzera behartu gaitu; horregatik, iazko bideari jarraituta, aurtengo streaming bidezko emanaldia hobekuntza askorekin datorrigu. Teknikaren arloan berrikuntza nabarmenak izango ditugu eta emanaldiaren produkzioan hainbat kolaboratzaile, adituak tartean: hor izango dira Arritxu Iribar, Guajardo anai-arrebak, etabar.

### **Aurten itxaropenak zenituzten ezarrita emakumezkoen III. Sari Nagusian ere. Horri ezin diozue heldu, ezta?**

Bai, pena handiarekin bertan behera laga behar izan genuen, egoerak horretara behartuta. Baina horrek indar berriak eman dizkigu bide horretatik jarraitzeko eta 2021. urteko emakumezkoen III Sari Nagusia 1.1 mailakoa izango dela aurreratzeko aukera eskaintzen digu, hau da, gorengo mailako emakumezkoen txirrindularitza gurean finkatzeko asmoz.

### **Datorren urtean Valenciagaren 50. urteurrenara iritsita, baduzue asmo berezirik horrelako data esanguratsua ospatzeko?**

Datorren urteko Valenciaga Memoriala sei hilabete barru etorriko zaigu, beti ere bere ohiko datan jokatzeko bada. Ekital-



### **“Helmuga Arratera aldatu dugu jendea ez pilatzeko asmoz”**

di bereziren bat egiteko asmoa ere badabilkigu burutik... Baina ezin gara gauza handirik prestatzen hasi, egoera normaltasunera bueltatu arte behintzat.

### **Zelako osasuna du Gipuzkoako txirrindularitza klub beteranoenak? Badago jendea lan egiteko prest, bazkide kopuruari eusten diozue...?**

Txirrindularitza Gipuzkoan beti izan da beste inon baino arrakastatsua. Estatu mai-

### **“Espainiako Kopa gure lasterketan erabakiko da”**

lan federatu kopuru handiena du probintzia txikiena izanda; hori oso datu adierazgarria iruditzen zait, azpimarratzekoa. Hala eta guztiz ere, jendea gero eta gutxiago konprometitzen da. Arazo asko izan dira federazioan zuzendaritza berria osatzeko, zorionez azkenean aurrera ateratzea lortu bada ere. Eibarko Txirrindulari Elkartearen bazkideen kopuruari dagokionez, pozik gaudela aitortu behar dut, ia 500 bazkide baditugu-eta.

### **Zuk zeuk zenbat urte daramatzazu karguan? Noiz arte jarraitzeko asmoa duzu?**

Aurtengoa nire laugarren urtea da presidente moduan. Eta, legeak agintzen duen arabera, azaroaren 2an hurrengo lau urtetarako presidentea izateko hautagaien zerrendak osatzeko epea irekiko dugu, abenduaren 30a arte iraungo duena. Nire hautagaizta berriro aurkeztea erabaki dut: alde batetik, batzarkideek oso talde egonkorra eta langilea osatzen dugulako eta, bestetik, gauza asko ditugulako oraindik egiteko. Gogotsu gauden bitartean jarraituko dugu; baina, egiari zor, gazteen beharra dugula aitortu beharrean nago. Bestela, hemendik urte gutxira jubilatuen elkarteak bihurtuko gara.

### **Azkenik, zer eskatuko zeniek txirrindulari-zaleei domekarako?**

Sekula baino mezu mingarriagoa ezin daiteke bota... Baina osasun-egoera honetan zentzudun jokatzeko komeni zaigu. Hau da, jendeari eskatuko nioke lasterketa Streaming bidez jarraitzea, ahal izanez gero. Gure web orrian ([www.clubciclistaeibares.org](http://www.clubciclistaeibares.org)) hasieratik amaierara arte ikusteko aukera izango da eta, posible ez balitz, segurtasun-neurrirei eusteko eta musukoak erabiltzea ez ahazteko. Guztia ondo urtetzeko itxaropena dugu.

## **Iazko irabazleak Movistarrera egin du jauzi profesionaletan**



IÑIGO ELOSEGIK garaipen bikaina eskuratu zuen orain arte jokatuak azken Valenciaga Oroitzarrean. Lizarte taldean korritzen zuen orduan Jose Antonio Momeñeren bilobak eta aurten Movistarrekin debutatu du profesionaletan, bere aitona heldu zen mailaraino iristeko asmoarekin: Kas taldeko txirrindularia laugarren izan zen Tour batean. Zierbenako txirrindulariak Valenciaga bereganatzea “pasada bat” izan zela zioen, “estatu mailako egutegian irrika gehien sortzen dizun proba delako; Valenciagak mugitzen duena ez du beste inork lortzen, zaleak direla, komunikabideak, antolaketa... Ezin harroago nago lasterketa irabazteaz”. Bere ibilbidean lortutako garaipen garrantzitsutzat du Eibarko proba, “Espainiako Txapelketarekin batera. Asko gozatu nuen Eibarko proban eta prestatutako guztia primeran irten zitzaidan”.








## Idazlearekin Harixa Emoten euskerazko irakurketa taldeak aurrez aurreko saioei ekin die

Koronabirusaren eraginez aurreko ikasturtean eten behar izan zituzten aurrez aurreko saioei ekin diete berriz ere Idazlearekin Harixa Emoten euskerazko irakurketa taldekoek, hori bai, COVID-19tik babes-teko zaindu beharreko neurri guztiekin. Pertsonen arteko distantzia gordeta eta maskara ipinita, martitzen arratsal-

dean Alfontso Gartzandiaren "Itsu kolpeka" liburuari buruz aritu ziren berbetan, Antxon Narbaizak gidatuta. Hurrengo saioa azaroaren 3an egingo da: Txema Garcia-Viana gonbidatuko dute, "Pentaedroa" bere eleberriaren inguruan aritzeko. Egitasmoa Juan San Martin liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen dute.



## Alejandro Telleriari buruzko lan dokumentala bere web orrian ipini du ikusgai Ego Ibarrak

Ego Ibarra batzordeak "Alejandro Telleria *Alkate Txikixa* (1876-1939)" dokumentala ipini du ikusgai bere webgunean (www.egoibarra.eus). 13 minutuko iraupena dauka eta 1931ko apirilaren 14an II. Errepublikan aldarrikatu zuen alkatearen bizitza laburbiltzen du. Ego Ibarrak eta Badihardugu

elkartek zuzendutako lanak lekukotasun interesgarriak eta hainbat artxibotako iturri dokumentalak biltzen ditu, baita filmoteketako irudiak eta hemerroteka-iturriak ere. Fran Lasuen eibartarrak ipini dio ahotsa. Coliseoan, Alejandro Telleria omentzeko ekitaldian estreinatu zuten dokumentala.



## Kezka taldekoen dantzak iruditan

Azken hiru urteotan Kezka taldekoek egindako dantza-ekitaldietako argazkien hautaketa biltzen duen erakusketa hartzen du Deporrek urriaren amaiera arte, Klub Deportiboko Argazkilaritza taldearen laguntzarekin antolatutako egitasmoan. Horrekin batera, beste bi erakusketa prestatu dituzte Deportiboko argazkilariek, Bakarne Elejalde taldeko kidearen lanekin: Anbigu tabernan "Koloreak" izenekoa ikus daiteke eta Portalea jatetxean Kubako irudiak ipini dituzte. Biak urriaren 31ra arte egongo dira zabalik. Bestalde, 2021ean argazki erakusketa egin nahi dutenek izena eman dezakete [jlorigoien@gmail.com](mailto:jlorigoien@gmail.com) helbidera idatzita eta, adibide modura, hiru argazki bidalita (bereizmen txikiarekin).

## Ibon Muñoaren liburu berria

Kordoban preso dagoen Ibon Muñoa eibartarrak 'Gure Ama-Lur feminista da' liburuia idatzi du, kartzelan idatzi duen zazpigarrena. Lan berri honetako bertsoek aurreko liburuen ildoari eta kronologiari jarraitzen diete. Horrela, liburu honen lehen bertsoak 863. zenbakia daroma eta azkenak 1018. zenbakia. Guztira, 141 bertso berri idatzi ditu Muñoak. Xabier Amuriza idazleak egin du liburuaren hitzaurrea eta irudiak Mikel Zarrabek egin ditu. Liburuia hilaren 24an aurkeztuko dute, 12:30ean, San Andres elizako klaustroan.



## Izaroren kontzertua azaroan

Izaro Andres musikari mallabitarrak kontzertua eskainiko du azaroaren 6an, Coliseoan, 20:30ean, eta honezkero sarrera guztiak saldu dituzte. 26 urteko abeslariak 'Limonos en invierno' izenburuko lana kaleratu du aurten eta, bere musikari esker, publikoaren beroa jaso du Atlantikoaren alde batean eta bestean.



Armeria Eskolako lorategi tropikala. PEDRO ARRIOLA



|   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   |   | 9 |   |   |   |
| 7 |   | 5 | 1 | 6 |   | 9 |
|   | 9 | 8 |   |   |   | 4 |
|   |   |   | 1 | 3 |   | 7 |
|   | 3 | 6 |   |   | 9 | 5 |
|   | 1 |   | 6 | 9 |   |   |
| 1 |   |   |   |   | 2 | 4 |
|   | 7 |   | 2 | 4 | 8 | 6 |
|   |   |   |   | 6 |   |   |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 |   |   | 5 | 7 | 3 |   |   | 2 |
|   |   |   |   |   |   |   |   | 7 |
|   |   |   |   | 2 | 8 | 1 | 9 |   |
|   |   |   |   |   |   |   | 7 | 4 |
|   | 2 |   | 9 |   | 4 |   | 6 |   |
| 6 | 1 |   |   |   |   |   |   |   |
|   | 5 | 8 | 7 | 4 |   |   |   |   |
| 7 |   |   |   |   |   |   |   |   |
| 1 |   |   | 8 | 3 | 9 |   |   | 5 |

soluzioa



|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 1 | 2 | 9 | 7 | 3 | 6 | 5 | 4 |
| 7 | 9 | 1 | 6 | 3 | 8 | 2 | 4 | 5 |
| 5 | 8 | 3 | 4 | 2 | 1 | 9 | 7 | 6 |
| 6 | 2 | 9 | 7 | 4 | 3 | 8 | 5 | 1 |
| 1 | 3 | 6 | 5 | 2 | 8 | 4 | 7 | 9 |
| 9 | 5 | 4 | 2 | 1 | 3 | 6 | 8 | 7 |
| 7 | 6 | 3 | 8 | 5 | 1 | 9 | 2 | 4 |
| 8 | 2 | 9 | 7 | 4 | 3 | 6 | 5 | 1 |
| 1 | 3 | 6 | 5 | 2 | 8 | 4 | 7 | 9 |

## SUDOKUAK

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 1 | 2 | 9 | 7 | 3 | 6 | 5 | 4 |
| 7 | 9 | 1 | 6 | 3 | 8 | 2 | 4 | 5 |
| 5 | 8 | 3 | 4 | 2 | 1 | 9 | 7 | 6 |
| 6 | 2 | 9 | 7 | 4 | 3 | 8 | 5 | 1 |
| 1 | 3 | 6 | 5 | 2 | 8 | 4 | 7 | 9 |
| 9 | 5 | 4 | 2 | 1 | 3 | 6 | 8 | 7 |
| 7 | 6 | 3 | 8 | 5 | 1 | 9 | 2 | 4 |
| 8 | 2 | 9 | 7 | 4 | 3 | 6 | 5 | 1 |
| 1 | 3 | 6 | 5 | 2 | 8 | 4 | 7 | 9 |

soluzioa

## LABIRINTOAK



## 7 DESBERDINTASUN



## Telefono jakingarriak

|                                                |                             |
|------------------------------------------------|-----------------------------|
| SOS deiak                                      | 112                         |
| Pegora                                         | 010                         |
| Udaletxea                                      | 943 70 84 00                |
| Portalea                                       | 943 70 84 39                |
| Udaltzaingoa                                   | 943 20 15 25                |
| Mankomunitatea                                 | 943 70 07 99                |
| Debegesa                                       | 943 82 01 10                |
| KIUB                                           | 943 20 38 43                |
| Epaitegia                                      | 943 03 34 00                |
| Iberdrola                                      | 900 17 11 71                |
| Naturgas                                       | 902 12 34 56                |
| DYA Larrialdiak                                | 943 46 46 22                |
| Gurutze Gorria                                 | 943 22 22 22                |
| Eibar Ospitalea                                | 943 03 29 00                |
| Mendaro ospitala                               | 943 03 28 00                |
| Anbulategia                                    | 943 03 25 00                |
| Torrekoa                                       | 943 03 26 50                |
| Errepideak                                     | 902 11 20 88                |
| Ertzaintza                                     | 943 53 17 00                |
| Eusko Tren                                     | 944 33 33 33                |
| Lurraldebus                                    | 900 30 03 40                |
| Pesa                                           | 900 12 14 00                |
| Taxiak                                         | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea                                      | 943 70 08 28                |
| Alkohol. Anon.                                 | 629 14 18 74                |
| Al-Anon/Alateen                                | 650 26 59 63                |
| Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak) | 699 37 75 20                |

## Farmaziak

### BARIXAKUA 9

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

### ZAPATUA 10

EGUNEZ | Morgado (San Agustin, 3)

### DOMEKA 11

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

### ASTELEHENA 12

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

### MARTITZENA 13

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

### EGUAZTENA 14

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

### EGUENA 15

EGUNEZ | Lafuente (Sostoatarren, 10)

### BARIXAKUA 16

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2020an,  
Barandela (Ziriako Agirre, 4)

## Eguraldia (euskalmet.net)



## Hildakoak

- **Isabel Herrero Raposo.** 91 urte. 2020-10-2.
- **Julia Larrañaga Gallastegi.** 86 urte. 2020-10-3.
- **Rosa Etxebarria Azkonaga.** 84 urte. 2020-10-4.
- **Carmen Azkarate Retolaza.** 83 urte. 2020-10-5.
- **Fabri Refoyo Rapado.** 80 urte. 2020-10-5.
- **Carlos Zulueta Guridi.** 67 urte. 2020-10-6.

## Jaiotakoak

- **Said Dah Taleb.** 2020-9-21.
- **Tashim Lakhal.** 2020-9-26.
- **Omar El Amoum Jebari Amesnaou.** 2020-9-30.
- **Chamss El Amoum Jebari Amesnaou.** 2020-9-30.



# ek!

**ESKELAK,  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK...  
jartzeko:**

**688 62 76 89**

publizitatea@etakitto.eus

# e k!



ezagutzen dituzu  
gure sare sozialak?



etakitto.eus



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



### Zorion-agurrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurrez hartuko

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **JUNE**, atzo 4 urte bete zenduaz-en-eta. Musu eta besarkada haundi bat, printzesa, aitatxo, amatxo eta lbairen partez!



Zorionak, **LAIA!!!** Urriaren 8xan 8 urte!!! Besarkada haundi bat etxekuen partez!



Zorionak, **NAHIA**, etxeko printzesa, astelehenian 5 urte bete zenduaz-en-eta! Musu erraldoi bat Nileren eta etxeko guztien partez!



Zorionak, **IZARO**, gure neska haundi!, bixar 12 urte beteko dozulako. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **ARTZAI!!!** Domekan 4 urte beteko dozul-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Koikilliren partez. Asko maite zaitugu!!!!



Zorionak, **NAIA**, domekan 10 urte beteko dozul-eta. Patxo haundi-haundi bat famelixaren eta, batez be, Alaitzen partez.



Zorionak, **EKAIN!** Eguaztenian 10 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo erraldoi bat zure famelixaren partez.



Zorionak, **ANE**, eguaztenian 12 urte egin zenduaz-en-eta! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MARKO** Morquecho Hernández, martitzenian 10 urte egin zenduaz-en-eta. Famelixako guztien partetik, txapeldun!



Zorionak, **MARKEL**, hillaren 13an 4 urte beteko dozul-eta! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NEREA**, hillaren 13an 10 urte beteko dozul-eta! Musu erraldoi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Ireneren partez.



Zorionak, **SARA** (abuztuaren 23an urtetxua egin zenduan) eta **NICOLAS**, domekan 5 beteko dozulako. Etxekuen partez.



Zorionak, **AINHOA** (10 urte bete zenduaz-en martitzenian) eta **MICHEL** Unanue Thobie (7 urte beteko dozul bixar). Musu haundi bana etxekuen partez!!



Zorionak, **MARIAJE** eta **ALEX**, zuen urrezko ezteietan!! 50 urte beteko musu potolo bana famelixa guztiaren partez eta eskerrik asko holakuak izatiarren! Muaaaa!!

## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

- **10ean:** 16:00, 19:30, 22:30
- **11n:** 17:00, 20:15
- **12an:** 20:30

“Rifkin’s Festival”

Zuzendaria: Woody Allen



### 2 ARETOA

- **10ean:** 19:30, 22:30
- **11n:** 17:00, 20:15
- **12an:** 20:30

“Explota explota”

Zuzendaria: Nacho Alvarez



### ANTZOKIA

- **10ean:** 16:00 (1 aretoa), 22:00
- **11n:** 20:00
- **12an:** 20:30

“Akelarre”

Zuzendaria: Pablo Agüero



### ANTZOKIA

- **10ean:** 16:00 (2 aretoa)
- **11n:** 17:00

“Vicky el Vikingo y la espada mágica”

Zuzendaria: ric Cazes



# Iragarki laburrak



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

Iragarki laburrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurre hartuko

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Pisu berria salgai Urkizun. 2 logela, egongela, sukaldia eta 2 bainugela. Guztiz jantzia, bizitzera sartzeko prest. Ikusteko arazorik ez. Tel. 666927559.

### 1.2. Errentan

- Neska euskaldunak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 646369330.
- Pisua alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Guztiz berriztuta. Bikoteentzako aproposa. Kanpora begira eta argitsua. Tel. 637587823.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Martxan dagoen ileapaindegia salgai, jubilazioa dela-eta. Tel. 943120218.
- Neska euskaldunak garaje itxia edo marra bat hartuko luke, trasteroarekin, Eibarko erdialdean. Tel. 646369330.
- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256.

### 3.2. Errentan

- Garajea hartuko nuke alokairuan San saburu, Txaltxa Zelai edo Urki inguruan. Tel. 645007388. Jasone.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Menpekoei laguntza sozio-sanitarioa eskaintzeko tituluekin. Tel. 631908193.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Externa. Tel. 635189294.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsaritza, garbiketara edo basogintza lanak egiteko. Tel. 602188264.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko. Tel. 617571210.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Kurtsoa eginda eta hiru urteko esperientziarekin. Tel. 631627419.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 612221327.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 657155078.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Urtetako esperientzia. Tel. 680526228.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 612525893.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 722630678.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631980531.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta etxeak garbitzeko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631382330.
- Emakume euskalduna eskaintzen da zainketa lanetarako edota etxeko lanak egiteko. Autoarekin. Tel. 657794652. Nerea.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak

zaintzeko eta garbiketarako (etxeak, bulegoak) egiteko. Eusko Jaurlaritzaren tituluekin. 7 urteko esperientzia. Tel. 603514985.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta tabernetan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 602825740.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 656826860.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631759107.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 610668183.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako: tailerlean lan egin, garbiketarako... Tel. 722531998.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 612418183.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 695074117.

### 4.2. Langile bila

- Laguntzaileak, higienistak eta dentistak behar dira Eibarko hortz-klinika batean. Tel. 943700082.
- Langileak behar dira Eibarko hortz-klinika batean hortz-higienista bezalajarduteko. Berehala hasteko. Bidali kurrikuluma: hortzklinika.06@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Neska euskalduna eskaintzen da klase partikular pertsonalizatuak emateko (Matematika, Fisika, Marrazketa...). Urteetako esperientzia. Tel. 688678199.
- DBH eta Batxilergo klase partikularrak ematen dira, edozein arlotan. 3 laguneko taldeetan edo banaka, baita online ere. Tel. 615708043.
- Ingeles filologo elebidunak (11 urte Erresuma Batuan) ingelesezko klaseak ematen ditu. Ume eta helduentzako maila guztiak, kasu bakoitzera egokitutako ikas-erremintekin. Tel. 617265575. Avelina.
- Euskarazko klaseak ematen dira. Perfilatarako prestakuntza (IVAP, HABE...) eta umeentzako eskolako errefortzua. Tel. 620608065.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestakuntzako ikasleei. Antzeko ezaugarriko 4 laguneko taldeak gehienez. Gainditu dutenen indize handia. Urte askotako esperientzia. Tel. 615-705945.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai


- Bizikleta estatikoa salgai. Berria, ia erabili gabe. BH Fitness Astra H 286. Pantaila digitala, entrenamendu kardiobaskularra, pultsazioen kontrola. 85 kilorainoko erabiltzailearentzat. 150 euro. Tel. 697288990.

### 6.3. Galdu / Aurkitu

- Belarritakoak topatu nituen hilaren Sean Aldatzeko haur eskolaren parrea. Tel. 672428273.

### 6.4. Bestelakoak

- DBH3ko liburuak erosiko nituzke. Tel. 637587811. Amaia.



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus





# osasun gida

## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

 **Isasi, 17 - 1. esk.**  
**943 202691**  
**ahotslan@gmail.com**

**Diagnostikoa eta tratamendua**

|                   |               |
|-------------------|---------------|
| Degluzio atipikoa | TDAH          |
| Disfonia          | Berba arazoak |
| Ikaste-arazoak    | TEA           |
|                   | Dislexia      |

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

## Podologoak

**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**



838200124  
kolegiatu zerbaki

T. Etxebarria, 5 - 1. A  
943 12 14 93 / 696 555 208

## Psikologoak

 **AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegua  
[www.centroamets.com](http://www.centroamets.com)

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoa  
PSIKOLOGOA (1201987 kolegiatu) - Master P.N.L.  
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
[www.arratepsicoterapia.com](http://www.arratepsicoterapia.com)

## Okulistak

 **Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
[www.oftalberdi.com](http://www.oftalberdi.com)

San Juan 11 - solairutera  
943 20 19 82

 BIDEBARRIETA, 48  
**EIBAR**  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
**ARRASATE**  
943 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (122 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

 Oscar Mondragon Lili  
GODEZ ETA ARRATZALDEZ  
Urkizu, 13 - beheak  
Tel. 943206823 eta 686859023

 **Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika


· **Miopia ebakuntzak**  
(femtosekundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13 

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)

**PODOLOGOA**

**Maidor Lopez Etxebarria**



Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tínoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

## Psikoterapia

 **FUB**  
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

**Medikuntza Psikiatrikoa**

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)  
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)  
94 416 49 06  
[furizar1@yahoo.com](mailto:furizar1@yahoo.com)

 **PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

**Iñaki Rivero Zabaleta**

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



bista eder

clinica dental · hortz klinika



Elkarrekin berreskuratuko  
dugu irribarrea.



bista eder

clinica dental · hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 20600 eibar

[www.bistaeder.es](http://www.bistaeder.es)



bistaeder\_clinicadental

